DURANGO:
2003ko Euskal Liburu eta Disko Azokaren hasierako hitzaldia (*)

Durango, 2003-XII-4

Joxemari Iriondo

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta Bizkaiko Diputazioko kultura diputatu andreak, Durangoko Alkate jauna, Liburu eta Disko Azoka honen antolatzaile jaunak, eta, batez ere, hemen bildu zeraten entzuleok.

Arratsaldeon denoi!

Gauza bi esan nahi nituzke lehenik, zuen aurrean oso urduri nago-eta:

1) Bazela garaia irratiari ere tarte txiki bat emateko hemen, besterik ezpadare bere propaganda egin dezan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka honen alde zerbait baino gehiago egin baitu 38 urte honetan. Irratia eta musika –diskoak–, bigarren mailako izan dira askotan. Baina, 1965eko Azoka hartatik hasi eta gaur arte, zerbait baino gehiago egin duela nago, bai Azokaren albisteak lau haizetara eman eta zabaltzen, eta bai azokazaleak animatzen Durangora etor zitezen/ditezen.

Izan ere, irratiak eragin handia du euskaldungoaren artean. Etzazute ahaztu irratia asko entzuten dela gaur ere; inoiz baino gehiago, seguruenik. 1.050.000 entzule pasa biltzen ditu irratiak hemen, lurralde autonomoan, egunero, nahiz eta garai bateko irratiaren *prime time* –ilunabarrak– telebistak jan zizkion.

2) 2003ko azokaren ateak idekitzeko, Irratia eta euskara gaiari buruz hitzaldi bat behar eta niri eskatu zenidaten. Ausardia ere behar dela esango nuke. Beno, eztakit eskatzea ausardia den, baina nik baietz ematea bada atrebentzia. Azoka honek ondo merezitako maila ta izena du gure artean, eta hizlari hobea merezi zukeen seguruenik. Halare gai hau egunero eskuartean, buruan eta bihotzean erabili dut berrogei urte eta gehiago honetan, hori nahiko meritu ezpada ere gaur hemen zuen aurrean egoteko.

(*) Azkenean, mintzaldia 20 minutura mugatu behar nuela esan zidaten, eta laburpena bakarrik eman ahal izan nuen.

Dena dela, egia da, bai, irratia eta euskeraren gai honetan lekuko zuzena izateko aukera eta suerte ederra izan dudala. Eta bikote honen historia kontatuko dizuet laburki, analisi eta azterketa handiak egiten ausartu gabe. Beste azterketa sakonago baterako abiapuntu izan ditekeen hainbat puntu gogoratuko ditut, garbiago esateko.

* * *

IRRATIA: LASTER 80 URTE

Bai, laster beteko ditu 80 urte irratiak Euskal Herrian. Hogeigarren hamarkadan etorri zen irratia hona. Historiak kontatzen duenez, 1923an hasi zen Irrati Komertziala Espaiñian (*Radio Ibérica* - Madrid, 1923ko iraila), nahiz eta Armada eta Telegrafoak bi urte lehenago hasiak ziren irrati-sistemaz baliatzen, bere komunikaziotarako.

Geroago, anaiarteko gerratean, oso baliabide garrantzitsutzat eduki zuten bando biek, beren zabalkundea egiteko. Eta Munduko Bigarren Gerrate handian, *uhinen gerra* deitura eman zioten irratiari.

Jose Antonio Primo de Riveraren diktadura garaian, 30. hamarkadan, eragin handia izan zuen irratiak, *España Una, Grande y Libre*-aren kontzeptua garrantzitsua zen-eta (nire haurtzaroan, Espainia erbi handi bat zela ulertzen nuen nik). Irakurri gutxi irakurtzen orduan ere, eta bazekiten irratiak lan ona egin zezakeela ideia eta pentsamentu bakarra gaur bezalaxe noranahi zabaltzeko. Euskal Herria etzuten alde batera utziko, nola ba? Garai hartan ere, orain bezelaxe, Euskal Herria Espainia zela demostratu behar zen.

Baina urteak joan dira, eta pentsa gauzak nola aldatu diren ordutik hona! Gaurko gerratan ez dago irratiaren halako beharrizan nabarmenik. Oraingo gerra handietan telebisioa behar da bereziki, sarraskiak noiz eta nola hasi diren erakusteko, etsaia nola zanpatzen duen, nolako txikizioak egiten dituzten eta abar munduari erakusteko, handiak nahi duena eta nahi duen neurrian kontatuz, eta nahi dituzten irudiak bakarrik emanez ikusleei.

Bistan denez, lehen irratia bezalaxe, gerraren zati bat da telebisioa gaur egun, ikusleriarentzat. Beste komunikazioetarako, berriz, zerutik zorrotz begira dauden sateliteak erabiltzen dituzte gerrariek, sistema horiek ere irrati-loturazkoak direlarik, orohar.

Lehenengo irratiak Euskal Herrian

Lehenengo irratia 1925ean heldu zen Euskal Herrira, Bilbora lehenengo eta Donostiara gero. Ondorengo datu hauek efemeride xehe eta hutsak dira, nahi baduzue. Baina hauexek ematen digute irratia Euskal Herrian sartu zen garaiaren berri. Eta garrantzitsuak dira, nire iritziz:

1925eko martxoaren 1ean hasi zen –Espainian hasi eta bi urtera– *Radio Club Vizcaya - EAJ-9* zeritzon lehenengo irratia. *Hotel Carlton-eko irratia,* deitzen zioten hiritarrek, hotel horretan kokatuta zegoen-eta.

Bilboko zenbait irratizale 1924an hasi ziren bildu eta hizketan, artean ezagutzen ez zen irrati bat martxan jarri behar zela-eta. Bide batez, Bilboko merkatariak eta dendariak ere gogotik hasi ziren irrati aparailuak bezeroei eskaintzen, nahiz eta baimen bereziak behar zituen erosleak. Berehaldiko kanpainak antolatu zituzten Bilbo aldean, esaten dutenez.

Bilboko Irratia ez ziren nolanahi hasi, 1925ean. Kulturaren kezka handia izan bide zuten irrati hartako arduradunek, eta *Universidad Radiofónica de Vizcaya* elkartea sortu zuten, irratirako profesional eta laguntzaile berriak prestatzeko, aurrera begira. Egunean hiru orduko emankizuna egiten zuten, hortarakoxe baimena zutenez. Eta horien erdia, gutxi gorabehera, hizkuntzak, Literatura eta Arte eta zientziak erakusteko erabiltzen zuten.

Sortu eta handik bi urtera, *Radio Club Vizcaya, EAJ-9; Radio Barcelona, EAJ-1, Unión Radio Madrid, EAJ-7, Radio Sevilla, EAJ-5* eta *Radio Salamanca, EAJ-22,* elkarrekin irratsaio eta emanaldi bereziak egiten hasi ziren, lehenengo *Unión Radio* zelakoaren egitasmoak burutuz.

Sei hilabete beranduago, 1925eko irailaren 30ean, beste irrati bat abian jarri zuten Bizkaiko hiriburuan, *EAJ-11, Radio Vizcaya* deiturarekin. Armando Otero jauna zen enpresako buru, nahiz eta *Compañía Ibérica de Telecomunicaciones*-en kapitala erabili zuten, ekonomiari zegokionez. Haren entzuleen artean, *Unión Radio Asociación de Vizcaya* antolatzen ahalegindu ziren, beharrezko diru-laguntza bildu eta pogramazioari buruzko iritziak eman zitzaten. Bizkaiari eta, batez ere, Bilbori zegokion giroko programak antolatzeko kezka nabaria zen haien artean.

Aldi hartan, Donostiako Udalak ere ahalegin handiak egin zituen Gipuzkoako hiribururako irrati bat lortu nahirik, Donostiako turismoa suspertzeko garrantzitsua eta ezinbesteko zenez. Baina badirudi Donostiako Alkateak ez zuela Bilboko zaldunen abilidadea eta ahalmenik. Haren lehenengo ahaleginak alperrikakoak izan ziren behintzat. Gero, alkate jaunak ezin izan zuena, Sabino Uzelaieta alkateordeak lortu zuen. Eta halaxe, *EAJ-6 Radio San Sebastián* zeritzonaren transmisio-ekipoak Igeldo gainean instalatu, eta 1925eko irailaren 29an hasi zen emititzen, erreginak eta señoritoak udapasa Bella Eason zeuden arte (garai hartako jauntxoen udaldia oraingoa baino askoz luzeagoa izaten baitzen). Hura ere *Union Radio* (2) zeritzon enpresa pribatuarena zen, jakina denez. Baina ordurarteko besteak baino euskaldunagoa, ezpairik gabe.

(2) Union Radio enpresa osatu, AEG-Telefunken, Compañía General de Electricidad, Compañía Telefónica Nacional de España, Sociedad Ibérica de Construcciones Eléctricas, RCA, Bell S.A. eta abarrek osatzen zuten.

Irratiok zer programazio egiten zuten jakin nahirik, artxibo askotan ibili izan naiz urteetan ere albiste bila, orduko egunkarietan bereziki. Baina ez dut atera arrasto garbirik oraingoz. Ez dut etsiko ordea. Bestalde, Donostiako Irratia euskaraz noiz eta nola hasi zen geroxeago esango dizuet, horren berriak jakin ditut-eta.

Beste irratiak 30. hamarkadan

Urteetan aurrera eginez, beste irratiak abiatu ziren Euskal Herria osoan: 1933an, *Radio Bilbao EAJ-28, Radio Pamplona EAJ-6* eta, *Radio Vitoria EAJ-6* (1934) enpresak sortu ziren, 1932ko abenduaren 8ko erret dekretu baten babesean.

Ordurako bazen beste irratirik ere. Hala nola, *Radio Tudela EAK-66* (1932) eta 30eko hamarkadaren lehen urteetan sortu zen *CES (Red de emisoras sindicales)* kateko beste *Radio Tudela* zeritzona, Tuteran. 1933ko maiatzaren 27an, Iruñeko *Radio Navarra* sortu zen, eta anaiarteko gerra garaian lan handia egin zuen, Nafarroako *Junta Carlista de Guerra*-ren eskuetara pasatu zelarik. Geroago, *Radio Requeté* deitura erabili zuen, 1958an SER katearekin elkartu zen arte.

Aldi batean Itziarko *Kettai* (Getaria) baserritik lehenengo, eta gero Getxoko Golf de la Galeatik bere saioak zabaltzen zituen *Radio Euzkadi / Euzkadi Irratia* sortu zuen Eusko Jaurlaritzak, 1936an, geroxeago aipatuko dugunez.

Geroz irrati gehiago

Gogoan izateko beste data eta efemeride batzuk ere aipatu nahi nituzke urtez-urte, garrantzi handia dute eta:

• 1925ean Bilbon eta Donostian hasi ziren irratien inguruan otso gosetiak bezala sartu ziren kanpotik lanerako irrikatzen zetozen beste irratiak. Gerra aurretik Donostian irrati bakarra *(Unión Radio)* zuen SER-ak bere katea osatu eta indartzen ahalegin berezia egin zuen Euskal Herrian. Hasteko, hiru irratiren jabe egin zen, poliki-poliki:

- 1944an *Radio Bilbao* erosi zuen.
- 1954an *Radio Vitoria* (Gasteizko Kutxarena) irratiarekin tratua egin zuen bere programazioaren zati handi bat eman zezan egunero.
- 1958an *Radio Requeté* de Navarra erosi zuen.

Eta gero beste kateak heldu ziren, 50eko hamarkadan:

REM (Red de Emisoras del Movimiento)

- 1953an, Radio Alava (1966an, *La Voz de Alava).*
- 1956an, *La Voz de Guipúzca.*
- 1957an, *La Voz de Navarra.*

CAR (Cadena azul de Radiodifusión)

- 1953an, Radio Juventud de Eibar.
- 1954an, Radio Juventud de Vizcaya.

(60ko hamarkadaren hasieran REM-CAR biak elkartu egin ziren.

Azkenean, Radio Nacional de Españak iruntsi zituen *Glorioso Movimiento*-ko hondakin zaharrak).

CES (Cadena de Emisoras Sindicales)

Irrati bat Tuteran, eta bestea Tafallan izan zituen. Halare, azkenengo honek oso iraupen txikia izan zuen.

RNE (Radio Nacional de España)

1961ean, Donostian hasi zen.

1970ean, Bilbon.

COPE (Cadena de Ondas Populares de España)

Euskal Herrian irrati txiki asko sortu zen parrokien babesean, Espainiako beste lurraldeetan bezalaxe, 50. hamarkadaren azkenaldera. Inork ez daki zenbat izan zitezkeen, baina bai asko zirela. Berrehun, hirurehun...

Euskal Herriari dagokionez, honako hauek gogora ditzakegu, gutxienez:

- Segura Irratia. 1956ko apirilaren 12an hasi zen. Gero, 1964an itxiarazi zuten; eta 1972an hasi zen berriro.
- Arrate Irratia 1959ko abenduaren 23an hasi zen. 1964an isildu eta 1982an hasi zen berriro.

Horiez gainera, beste irrati batzuk ere ezagutu genituen Euskal Herrian 50. hamarkadaren hondarretan, parrokien babesean: Tolosako Irratia, Begoñako Irratia, Arrasateko Eskola Profesionaleko Irratia, Irurita Irratia, Aranaz Irratia, Berruete Irratia, eta besteren batzuk. Eta bere programazioaren erdia baino gehiago euskaraz egiten zuten horiek denek. Egia da, bai. Mezak, errosarioak eta elizkizun asko ematen zituzten, baina euskaraz.

Alabaina parrokien babesean ari ziren irrati koskor horiek bakoitzak nahi zuena egiten zuela eta Espainiako Gobernuak irratien esparru radioelektrikoa arautu ta legeztatu nahi izan zuen, lanean ari zirenentzat bideak estutuagotuz, jakina ba! Estatua eta Elizaren arteko akordioaz baliatu, eta COPE edo Herri Irratien katea eraikitzeko baimena eta frekuentziak eman zizkion Francoren gobernu *eskuzabalak* Espainiako Gotzainen Batzordeari. Eta hiru urtez behin berraztertu eta berritu behar ziren irrati bakoitzaren baimenak, badezpadare.

Honatx Euskal Herrian sortu ziren Herri Irratiak, lege berriaren ondorioz:

- 1959ko abuztuaren 4an, Iruñeko Herri Irratia, Dominikoen zuzendaritzapean.
- 1960an, Bilboko Herri Irratia, Bizkaiko Gotzaingoaren ardurapean
- 1961eko otsailaren 11n, Loiolako Herri Irratia, Jesuiten zuzendaritzapean. (1965.07.22an isildu eta 1966.07.31n hasi zen berriro, FMn).
- 1962ko abuztuaren 15ean, Donostiako Herri Irratia, Gipuzkoako Gotzaingoaren ardurapean. 1970eko abenduaren 24an Jesuitek hartu zuten, irratiak diru-galera handiak zituela-eta.

Radio Euzkadi / Euzkadi Irratia

Radio Euzkadi / Euzkadi Irratia geroxeago aipatuko dudala esan dut. Izan ere, gaur egungo Euskadi Irratia / Radio Euskadiren guraso zaharra, *Radio Euzkadi, la voz de la resistencia vasca / Euskal Erresistentziko gudarien irratia,* 1936an hasi zen emititzen. Itziarko *Kettai* (Getaria) baserrian transmisorea instalatu eta hilabete batzuk lanean egin ondoren, Gipuzkoa erortzera zihoala etsita, Getxoko *Golf de la Galea*-ra joan zen, ihesi. Baina denbora gutxi egin zuen han ere. 1937an Bilbo hartu zutenean, Iparraldera ihes egin behar, berriz ere. Lehenengo, Donibane Lohizunen eta gero Mugerren iraun zuen –horixe, iraun–, 1946tik 1954rarte, agintarien beldurrez beti. Gero, Espainiako agintariek Frantziakoei presio gogorrak egiten jarraitu zuten, eta handik ere perrak jaso behar izan zituzten, Venezuelara joanez.

Hamar urteko isilaldi luze eta aspergarriaren ondoren, 1965eko uztailaren 10ean hasi zen emititzen handik, 1977ko apirilaren 30ean behin betirako ixteko, laster beste *Radio Euskadi / Euskadi Irratia* hasiko zela-eta.

Irrati honen nondik norakoak eta ahaleginak ezagutu nahi dituenari, Leire Arrieta Alberdi eta Jose Antonio Rodríguez Ranz-ek idatzi, eta EITB eta Sabino Arana Fundazioak argitaratutako *Radio Euskadi – La Voz de la Libertad* liburua gomenda diezaioket, erraz aurkituko ezpadu ere. Dena ez bada ere, historiaren zatirik onenak hantxe aurkituko ditu, seguru.

Irratiaren helburu nagusiak hauexek ziren, hitzez hitz:

1) *Ser una radio libre, dentro de sus modestos medios, para cumplir la misión de informar de cuanto la prensa y la radio franquista ocultaban a la masa de sus oyentes y lectores.*

2) *Contribuir a la formación del estado de opinión, consciente de la situación de opresión a la que el régimen sometía a Euskadi.*

3) *Fomentar la cultura vasca, y sobre todo, el euskera. Era la única emisora en la que diariamente se empleaba este idioma.*

Irratia eta euskeraren gai honekin zerikusi handia izan eta, batez ere, aldi batean gurean huraxe entzuteko ahalegin bereziak egin behar izaten genituelako, ez nituzke ahaztu nahi 1946an Radio Parisen bidez hasi ziren saio aipagarri haiek. *Euskal Irrati Ixilla* izenarekin, Jabier Landaburu, Telesforo Monzon eta Jose Antonio Durandoña arduratu ohi ziren hango lanaz.

Eusko Jaurlaritzaren agindu eta babesez egindako informazio-zerbitzuen sailean, berriz, Jesus Insausti '*Uzturrek*' antolatu eta ematen zituen albisteak ere oso gogoan izatekoak dira, Radio Parisen bidez. Zuetako norbaitek gogoratuko ditu, seguru asko, «Paris'tik Euskalerrira, Paris`tik Mundu Zabalera» eta beste saio asko, 1960tik 1964ra bitartean.

* * *

Irratia ugaltzen

Istorio eta kontakizunak laburtu eta aurrera egin behar dut ezinbestean, erdibidean beste xehetasun asko utzita.

Garai bateko irratien kontakizun laburra egin dizuet. Baina, orain zenbat irrati ari dira Euskal Herrian? galde lezake norbaitek. Eta hau bai dela gai korapilotsua eta jakiten zaila! Garai bateko irratien kontaketa egin eta jakitea erraza izango zen, agian. Baina oraingoak nola eta nork kontatu? Hasi eta denbora gutxi barru ixiltzen den asko baitago han-hemen.

Oraindik asko ez dela, Gasteiz Irratiko lankide bati entzun nionez, hiru irrati omen ziren Gasteizen orain 20 urte. Orain, berriz, ba omen dira 20 edo gehiago. Baina, Gasteizkoak bakarrik kontatzen zituen, itxura denez. Nik kontatu ditudanez, berrogeita hamar bat frekuentzia badira, gutxienez, Gasteizen eta Arabako herrietan sakabanatuta. Eta nik kontrolatu ez dudanen bat izango, atzo, gaur, noiznahi hasita.

Euskal Herriko beste lurraldeetan ere beste horrenbeste gertatzen da, inolako ezpairik gabe. Orain hilabete batzuk kontaketa zehatz samarra egiteko asmoz hasi nintzen, zerbait argituko nuela pentsatuta. Baina gero bertan behera utzi nuen zeregin hura, alperrik ari nintzela ohartuta. Izan ere, lehen esan bezela, hasi ta utzi egiten duen irrati asko baitago. Adibidez, Azpeitian eta Zarautzen baziren irratiak orain urte gutxi. Gaur ez dago ez batean eta ez bestean. Telebista bai, bietan bada telebista bana: ZTB, Zarautz Telebista, eta Kaito Telebista, Azpeitian; baina irratirik ez. Itxura denez, jendeak ikusi egiten du nonbait orain eta ez entzun.

Duela urtebete *Vives Radio SBA-k*, eta oraintsu Julian Belokik argitara eman duen zerrenda bati begira egon izan naiz dialean agertzen diren frekuentziei erreparatzen; eta beldurra ematen duela esango nuke. Beno, beldurra edo kezka. Garai batean (1964an) Fraga Iribarne zaharrak esan omen zuen «caraillo, ya está bien de jugar a radios!», esaldi huraxe datorkit burura. Eta esan egingo nuke gainera, norbaitek harexen antza dudala esango didan beldurrik ez banu.

Lurraldez lurralde egin dudan zerrenda honi erreparatzeko astirik bazenu, begiratu ondo:

1) Gipuzkoa.

87,7	RNE Radio 1	Donostia. Igeldo
88,1	Irun Radio - Ser	Irun
88,5	Cope Donostia	Donostia
88,7	RNE Radio 1	Azkoitia
88,9	Herri Irratia Donostia	Tolosa
89,2	Segura Irratia	Segura
89,7	Arrate Irratia	Eibar
90,0	RNE - Radio Clásica	Jaizkibel
90,0	Euskadi Gaztea	
90,4	Radio Euskadi	Tolosa
90,4	Radio Euskadi	Zarautz
90,5	Euskadi Irratia	Eibar
90,5	Radio Euskadi	Igeldo
90,8	Euskadi Irratia	Beasain
90,9	EITB Irratia	Jaizkibel
91,5	KISS FM	Donostia
91.9	Radio Pais Vasco	Donostia
92,1	RNE Radio 3	Jaizkibel
92,4	Euskadi Gaztea	Elosu (Agerreburu)
92,5	Radio Miramar	Donostia
92,8	Euskadi Gaztea	Tolosa
92,9	RNE Radio 1	Eibar
93,3	RNE Radio 5	Donostia (Ulia)

93,6	Arrate Irratia	Eibar (Arrate)
93,6	Euskadi Irratia	Elosu (Agerreburu)
94,4	Euskadi Irratia	Jaizkibel
94,8	Herri Irratia Donostia	Hernani
94,9	RNE Radio 3	Beasain
95,2	Euskadi Irratia	Donostia (Igeldo)
95,7	Radio Euskadi	Elosu (Agerreburu)
95,9	RNE Radio 3	Eibar
95,9	Pais Vasco Radio	Donostia
96,0	RNE Radio 3	Tolosa
96,5	Radio Euskadi	Jaizkibel
97,2	Los 40 Principales	Donostia (Igeldo)
97,2	Txapa Irratia (97,0)	Bergara
97,5	Formula Hit Gipuzkoa	Eibar
97,6	Radio Maria	Donostia
97,9	Euskadi Irratia	Tolosa
98,0	Cadena 100 S. Sebastian	Donostia
98,2	Radio Euskadi	Eibar
88,2	Euskadi Irratia	Zarautz
98,0	Radio Euskadi	Zarautz
98,4	RNE Radio Clásica	Beasain
98,5	Radio Donosti	Donostia
98,7	RNE Radio Clásica	Eibar
98,8	RNE Radio Clásica	Tolosa
98,9	RNE Radio 3	Donostia (Ulia)
99,2	Radio Master	Eibar
99,2	Molotoff Irratia	Hernani
99,3	Zirika Irratia	Idiazabal
99,5	RNE Radio Clásica	Donostia (Igeldo)
99,5	Molotil Irratia	Eibar
99,8	Loiola Herri Irratia	Elosu (Iturriberri)
100,0	Zintzilik Irratia	Errenteria
100,2	RNE Radio 1	Beasain
100,3	Planet Radio	Donostia
100,7	Radio Bahia	Lasarte Oria
101,1	Onda Cero Radio	Eibar
101,9	RNE Radio 1	Tolosa
102,0	Oñati Irratia	Oñati
102,5	Onda Cero Radio	Donostia
102,7	Euskadi Gaztea	
102,9	Euskadi Gaztea	Beasain
103,1	Euskadi Gaztea	
103,5	Euskadi Gaztea	Jaizkibel
103,7	Kaka Flash Irratia	Azpeitia (ixilik)

103,8	Bellari Irratia	Oñati
104,0	????	Errenderialdea
104,0	Cope Radio Estudio	Eibar
104,1	EITB Radio	Donostia
104,7	RNE Radio 1	Jaizkibel
104,9	RNE Radio Clásica	Azkoitia
105,0	Sorgina Irratia	Arrasate
105,0	Arrasate Irratia	Arrasate
105,0	Arlote Irratia	Ordizia
105,2	Herri Irratia Loiola	Ordizialdea
105,4	Errenteria Irratia	Errenteria
105,5	Zazpiki Irratia (107,6)	Elgoibar
105,7	Radio Euskadi	Beasain
195,7	Antxeta Irratia	Donostia
106,2	Radio Intereconomia	Donostia
106,8	Ttan Ttakun Irratia	Donostia
106,9	RNE Radio 3	Azkoitia
107,0	Goiko Irratia	
107,0	Radio Municipal	Errenteria
107,2	Itzurun Irratia	Zumaia
107,4	Radio Casares	Altza
107,5	Loatza Irratia	Billabona
107,5	Txolarre Irratia	Tolosa
107,5	Lib. Libre Irratia	Astigarraga
107,7	Taller Radio	Arrasate
107,9	Urdina Irratia	Pasaia

2) Bizkaia:

87,6	Getxo Irratia	Getxo
87,9	Euskadi Gaztea	Bilbo
88,0	Radio Nervión	Bilbo
88,3	Cadena Dial Onda Vasca	Gernika
88,6	Cadena Dial	Gernika
88,9	Euskadi Irratia	Bilbo (Ganeta)
89,5	Los 40 Principales	Bilbo
90,0	Mozoilo Irratia	Galdakao
90,1	Euskadi Irratia	Bermeo
90,1	La Siebe Irratia	Barakaldo
90,6	RNE Radio Clásica	Artxanda
91,2	Euskadi Gaztea	Oiz (Durangaldea)
91,7	Radio Euskadi	Bilbo (Ganeta)
92,2	Radio Popular de Bilbao	Bilbo
92,4	Radio Euskadi	Bermeo
92,5	Bizkaia Irratia	Ondarroa

92,7	Radio 7	Barakaldo
93,2	Cadena Dial Euskadi	Getxo
93,6	Euskadi Gaztea	Balmaseda
93,9	RNE Radio Clásica	Sollube
94,2	Cadena 100 Bilbao	Bilbo
94,4	Emisora Libre Rock	Bilbo?
94,7	Euskadi Gaztea	Bilbo (Ganeta)
94,7	Oye Radio	Basauri
95,2	Euskadi Irratia	Karrantza
95,4	RNE Radio 3	Sollube
95,7	Radio Euskadi	Balmaseda
96,0	Bilbo Hiri Irratia	Bilbo
96,3	RNE Radio Todo Noticias	Artxanda
96,6	Radio Euskadi	Larrantza
96,7	Bizkaia Irratia	Gernika
96,8	Euskadi Gaztea	Bermeo
97,0	Tas-Tas Irrati Librea	Bilbo
97,0	Stereo Latino Uribe Kosta	Sopela
97,3	Bizkaia Irratia	Elorrio
97,3	Formula Hit Vizcaya	Portugalete
97,4	Bizkaia Irratia	Bermeo, Amoroto
97,4	Euskadi Irratia	Balmaseda
97,8	Cope Bilbo	Bilbo
98,1	Bizkaia Irratia	Lekeitio
98,4	Radio Marca (Europa FM)	Barakaldo
98,8	M 80 Radio	Bilbo
99,2	RNE Radio 3	Artxanda
99,7	KISS FM	Bilbo
100,1	EITB Irratia	Bilbo
100,2	Euskadi Gaztea	Karrantza
100,4	Musika	Bilbo
1007	RNE Radio 1	Artxanda
101,1	Bidebieta Irratia	Basauri
101,5	Onda Cero Radio	Bilbo
101,9	Zopinki Irratia	Lutxana
102,1	RNE Radio 3	Oiz (Durangaldea)
102,6	Bizkaia Irratia	Bilbo
102,9	Gordexola Irratia	Gordexola
103,0	Radio Tropical (102,9)	Bilbo
103,2	Radio Euskadi	Oiz (Durangaldea)
103,7	Radio Interenonomia	Bilbo
	Anboto Irratia	Durango
104,4	Euskadi Irratia	Oiz (Durangaldea)
104,8	Radio Economía	Mungia

104,9	Bizkaia Irratia	Amorebieta
105,0	Txantxibiri Irratia	Elorrio
105,2	Itsuki Irratia	Bermeo
105,3	RNE Radio Clásica	Oiz (Durangaldea)
105,5	Top Radio Abanto	Abanto
105,5	Radixu Irratia	Ondarroa
105,9	RNE Radio 1	Sollube
106,0	Arrakala Irratia	Lekeitio
106,4	RNE Radio 1	Oiz (Durangaldea)
106,7	Gran Bilbao Radio	Bilbo
107,0	Pititako Irratia	Santurtzi
107,2	Gabara Irratia	Markina Xemein
107,2	Radio Indautxu	Bilbo
107,2	Radio Municipal	Turtzioz
107,2	Klaret Irratia	Bilbo
107,4	Hika Irratia	Muskiz
107,5	Irola Irala Irratia	Bilbo
107,7	Radio Esperanza	Bilbo
107,8	Durango Irratia	Durango
107,8	Gorliz Irratia	Gorliz
107,8	Erreka Irratia	Bilbo
108,0	Radio Ilotz Irratia	Derio
	Txorierri Irratia	Derio
	Radio Maria de España	Bilbo
	Radio Adventista	Bilbo

3) Nafarroa:

87,8	Radio Navarra Cope	Altsasu
87,9	Cadena 100 Navarra	Pamplona
88,2	RNE Radio Todo Noticias	Leitza
88,3	RNE Radio Todo Noticias	Tutera
88,3	RNE Radio Todo Noticias	Zudaire
88,3	RNE Radio 1	Gorramendi
88,6	RNE Radio 1	Leire (Arangoiti)
89,0	RNE Radio 1	Lizarra
89,3	KISS FM Pamplona	Pamplona
89,5	Radio Navarra Cope	Lizarra
89,6	RNE Radio 1	Ibañeta
89,8	RNE Radio 3	Leitza
90,3	RNE Radio 1	Isaba
90,4	Ser Radio Tudela	Tutera
90,4	Esc. Emisora Escolar	Altsasu
90,5	RNE Radio Clásica	Leire (Arangoiti)
90,6	RNE Radio 1	Lesaka

90,9	RNE Radio 5 Todo Noticias	Lizarra
91,0	Euskadi Irratia	
91,3	Radio Navarra Cope	Elizondo
91,3	RNE Radio 3	Tutera
91,4	Euskalerria Irratia	Pamplona
91,8	RNE Radio Todo Noticias	Isaba
91,9	RNE Rdio Clásica	Leiza
91,9	RNE Radio Clásica	Zudaire
92,2	Los 40 Principales	Pamplona
92,6	Europa FM	Zangotza
93,0	RNE Radio 3	Monreal
93,5	Onda Cero Radio	Lizarra
93,4	RNE Radio Clásica	Muskilda
93,8	RNE Radio Clásica	Ibañeta
93,9	SER Tafalla	Tafalla
94,2	Onda Cero Radio	Pamplona
94,8	RNE Radio Clásica	Lesaka
94,9	Radio Navarra Cope	Pamplona
95,0	Euskadi Irratia	Baztan
95,1	RNE Radio Clásica	Isaba
95,7	RNE Radio Todo Noticias	Monreal
95,9	RNE Radio 3	Muskilda
95,9	———	Tutera
96,3	Cadena Dial Radio	Tafalla
96,7	RNE Radio 1	Aralar
97,0	RNE Radio 3	Lesaka
97,5	RNE Radio Clásica	Monreal
97,8	RNE Radio Todo Noticias	Muskilda
97,8	Radio Euskadi	Baztan
98,0	Lib. Txantrea Irratia	Txantrea
98,3	Radio Univ. de Navarra	Pamplona
99,0	RNE Radio Clásica	Gorramendi
99,2	Europa FM Pamplona	Pamplona
99,4	Onda Cero Radio	Tutera
99,6	RNE Radio 3	Leire (Arangoiti)
100,0	RNE Radio Clásica	Aralar
100,6	RNE Radio 3	Gorramendi
100,7	RNE Radio 3	Zudaire
100,8	Berriozar Irratia	Berriozar
100,9	RNE Radio 1	Tutera
101,0	RNE Radio Todo Noticias	Leire (Arangoiti)
101,2	RNE Radio Clásica	Lizarra
101,6	Trak FM	Pamplona
101,7	RNE Radio 1	Zudaire

101,9	Lib. Garraxi Irratia	Altsasu
101,9	RNE Radio Todo Noticias	Ibañeta
102,2	RNE Radio Todo Noticias	Lesaka
102,2	RNE Radio Clásica	Tutera
102,2	RNE Radio 1	Leiza
102,3	RNE Radio 1	Muskilda
102,5	RNE Radio 1	La Plana (Calahorra)
102,5	Esc. Emisora Escolar	Illunberri (Lunbier)
102,7	RNE Radio Todo Noticias	Aralar
103,0	RNE Radio 3	Isaba
103,1	Radio Navarra Cope	Tutera
103,4	RNE Radio 3	Ibañeta
103,9	Lib. Eztanda Irratia	Iturmendi
103,9	RNE Radio Todo Noticias	Gorramendi
104,2	Radio Euskadi	Huarte?
104,3	RNE Radio Todo Noticias	La Plana (Calahorra)
104,5	Lib. Eguzki Irratia	Pamplona
104,7	Radio Navarra Cope	Peralta
105,5	Net 21 Radio	Pamplona
105,7	Radio Euskadi	Tutera
106,1	RNE Radio 1	Monreal
107,0	Lib. Beleixe Irratia	Etxarri Aranaz
107.1	Mun. Radio Lekunberri	Lekunberri
107,2	Xorroxin Irratia (107,5)	Lesaka
107,2	Lib Zarata Irratia	Pamplona
107,2	Mun. Onda Ribera Radio	Fontellas
107,3	Karrape Irratia	Leitza
107,3	Mun. Aralar Irratia	Lekunberri
107,4	Radio Maria España	Andosilla
107,4	Esc. Emisora Escolar	Fontellas
107,5	Lib. Sanduzelai Irratia	Pamplona
107,5	Xorroxin Irratia (1072)	Irurita
107,7	Lib. Extra Radio	Pamplona
107,7	Mun.	San Adrian
107,9	Mun.	Marzilla
107,9	Mun. Esan Erran Irratia	Jauntsaras
	Esc. Erantzun Irratia	Viana

* * *

4) Araba:

87,9	Radio Euskadi	Herrera
88,2	Ser Vitoria	Gasteiz
89,4	RNE Radio 5	Zaldiaran
89,7	Radio Euskadi	Zaldiaran

90,1	Radio Euskadi	Amurrio
90,9	Radio Euskadi	Yoar
92,5	RNE Radio 1	Zaldiaran
92,8	Euskadi Irratia	Zaldiaran
93,1	Radio Gorbea	Gasteiz
93,3	RNE Radio 5	San Leon
94,0	Euskadi Irratia	Herrera
95,0	Euskadi Irratia	Zaldiaran
96,1	Euskadi Gaztea	Zaldiaran
96,2	Radio Euskadi	Estibalitz
96,5	Hala Bedi Irratia	Aiara bailada
96,9	RNE Radio Clásica	Zaldiaran
97,3	Cadena 100 Vitoria	Gasteiz
98,0	Radio Popular Loyola	Vitoria
98,5	Euskadi Irratia	Ioar
98,8	M 80 Radio Llodio	Laudio
99,1	Euskadi Gaztea	San Leon
99,5	RNE Radio 3	Zaldiaran
100,4	Los 40 Principales	Gasteiz
101,0	Cope Vitoria	Gasteiz
101,7	Radio Vitoria	Amurrio
101,9	Hala Bedi Irratia	Sakana
101,9	Radio Vitoria	Amurrio
102,4	Onda Cero Radio	Gasteiz
102,8	Radio Vitoria	Herrera
103,3	EITB Irratia	Herrera
104,1	Radio Vitoria	Zaldiaran
104,8	RKM Vitoria	Vitoria
104,9	Euskadi Gaztea	Amurrio
105,0	Euskadi Gaztea	Ioar
105,6	Radio Intereconomia	Gasteiz
105,8	R. Rioja Alavesa	Laguardia
106,5	Radio Vitoria	Ioar
106,7	KISS FM Radio	Gasteiz
107,4	Hala Bedi Irratia	Gasteiz
107,5	M 80 Radio	Amurrio
107,7	Hala Bedi Irratia	Herrera

Oharra: FM bandan emititzen duten irrati hauei, jaso ez ditudan beste hamar-hamabi irrati erantsi beharra dago; eta baita OM-n ari direnak ere, lurralde bakoitzean: RNE, SER, COPE, Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta Radio Vitoria.

Bistan denez, egundoko irrati-borroka dago gaur egun Euskal Herrian, denak elkar ito beharrean. Eta beste edozein lurraldetan ere hemen hainaxe edo gehiago dago, agian. Izan ere, irrati bat martxan jartzea gauza erraza da, no-

raezean eta kontrol zehatzik gabe hasten denean. Eta ez dut uste askotan helburu garbirik eta kontrol zehatzik dagoenik une honetan, hasi eta utzi edo hasi eta segi, bakoitzak nahi duena egiten du-eta. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailari dagokion frekuentzia, potentzia eta kota-neurriak kontrolatzeari buruz ari naiz, bereziki.

Honela badoaz, elkar itoko dute azkenean, eta gutxituko dira noizbait. Egon lasai. Libre izan eta nahi duenak nahi duena egitea ona izango da. Baina anarkia ez da ona sekula. Eta une honetan, anarkia handia dago irratian alor honetan, eta irratiaren kalterako dela deritzot. Horrela behar bada, horrelaxe bedi. Baina gutxi, txarra da; baita gehiegi ere. Beno, auskalo!

Bestalde, listo asko ere izan dela iruditzen zait azkenengo urte hauetan. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik baimena eta frekuentziak ofizialki lortu zituzten garai batean, eta gero emandako hitzari iruzur egin eta haien esplotazioa katea handiren bati saldu eta negozioa egin dutenez ari naiz. Ez dut emango inoren izenik, baina dozenerdi bat edo gehiago badira negozio koxkor horretan sartuta ari direnak.

Halare, negozioa baino askoz okerragoa dena, Irratia eta euskararen ikuspegitik: horiek denek eztutela fitsik egiten euskaraz, ez dutela herri honek beste hizkuntza bat ere baduenik pentsatu. Edota, euskaraz ere egiten dutela esango dute, bizpahiru hitz euskaraz esaten dituztelako. Izan ere, bada irrati askotan oso modan dagoen «hola, amigos, egun on, lagunak!», «Bihar arte, amigos», esaldiekin funtzionatzeko ohitura madarikatu bat. Horrelako formulak Gipuzkoa aldean ere erruz entzuten ditut, geroz higuingarriago egiten bazaizkigu ere, egia esan. Irrati horietako profesional asko beste mundu batean bizi da, eta hori bai dela kezkagarria. Badakit alferrik esatea dela, baina formula hori asmatu zuenak bi belarrondoko onak merezi zituen garaiz.

Aipatzen hasita ere, beti eredu berdinak aipatzen ditugu; baina Katalunyan, edo Galizian, tokian tokiko hizkuntzarekiko errespetu eta sentiberatasun gehiago da hemengoetan baino, orohar behintzat. Hemen ez dago sentimenturik; eta euskarari ezetz esateko eta justifikatzeko kezkarik ere ez. Gogorra iruditzen zaigu, baina horrelaxe da. Zer nahi duzu?

* * *

EUSKARA IRRATIAN

Gaurko bilera honetarako puntua hauxe denez, konta dezadan orain euskara irratian noiz eta nola sartu zen, eta nola dagoen, horixe da-ta Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako antolatzaileek eskatu zidatena, 2003ko urriaren 3an Donostian bildu ginenean. Datu eta data pila bat emango dizuet, eta aspergarri izan naiteke, behar bada. Horrela balitz, barkatu.

Euskara eta irratiaren arteko adiskidantza, al dakit nola esan, laburra, zaila, pobrea, eta lotsatia izan da, azkenengo urte hauetan irrati batzuk egin dutenagatik ezpalitz.

Lehenago esan dizuedanez, *Unión Radio* enpresak, 1925ean ireki zituen bere lehenengo irratiak Bilbon eta Donostian. Donostiako Udalak ahaleginak egin zituen irrati bat herrira ekarri nahita. Baina etzuen lortu, harik eta udal hartako alkateorde zen Sabino Uzelaieta jaunak *EAJ-6 Radio San Sebastian* irratia ekartzea lortu zuen arte. Harreman onak zituen nonbait goiko jendearekin, eta berak lortu zuen lehenxeago alkateak eta beste donostiarrek ezin izan zutena. Atea non eta nola jo jakiteak asko balio, jakina. Baina lortu zuen, eta horrek balio zuen, egiaz.

Irrati hartako programazioa, elebiduna omen zela irakurri nuen aspaldi. «Euskaraz ere emititzen zutela» idatzi zuten behintzat. Zer eta zenbat euskara egiten zuen ordea? Auskalo. Ez dakit ordurako lehen esandako formula folkloriko horiek asmatuak zirenik. Baina bai, seguruenik.

Nolanahi ere, 1925eko azaroaren 15eko *Argia* astekariak pozez agurtu zuen irratiaren etorrera Donostiara, bere lehenengo orrialdean irakur dezakegunez:

> «Radio Donostia. Irratetxe bat, aririk gabeko urrutizkiña, badegu gure Donostiyan; eta, ziur jakiñ degunez, orain artean Españian –eta Erbeztean ere baijarri diranen artean, egokienez, ederkienez, ipiñitako bat degu berau: zoli ta ozenen entzutezko bat. Aurrerapen onek, nola ez?, poztutzen gaitu asko: gipuzkoarrak bagera, eresi zaleak, gaiñera, ta beztelako zer-nai on ta irakaspen jator zalekoak baigaituzu euskaldunok, ez da ala irakurle?»

Gero, irrati hasi berriarentzat laguntasuna eskatzen zuen astekariak, euskararen alde hauxe proposatuz, gutxienez:

> «Aurrez ordea, adierazi bearra dizut, «Radio Donostia»ko jabe ta jaunenganako ez dauzkatela txaloak baizik, entzuleek, aiñ gauza eder ta onuratsua Gipuzkoan jarri digutelako, eta, oraiñ artean, zuzenbidetik aldendu gabe, al duten neurrian, euskal eresi zabalketan, batez ere, ari diralako.»

1932ko martxoak 2

Baina handik zazpi urtera etorri zen benetako aurrerapausoa euskararentzat. Joxe Zubimendi kazetari-idazleak honela idatzi zuen 1932ko otsailean, *El Pueblo Vasco* egunkariaren euskarazko orrialdean, euskarazko irratsaioa laster hasiko zela aginduz:

> «Arazo orren gain au badezu lenengo izparra, agian, isekaz diogula usteko dezu. Baiña ez; sinista zazu. Aste asko baiño len, zeure etxean edo besteren batean irratizkiña entzuteko tresna bat badezu, entzungo dezu euzko abotsa.»

1932ko otsailaren 28ko *Argian*, honako iragarki hau sartu zuten arduradunek, lauki batean:

«Union Radio» Donostia

«Euzko Gaztedia»k eratutako irrasaioa
Asteazkenero, 7:30etatik 9:00tarako irrataldian
Lenengoa: datorren asteazkenean izango da

EITARAUA

1go. «Agur», Zubimendi'tar Joseba'k.
2go. Txolarte parregarria, Egileor ta Beorlegik.
3go. Eusko-abestiak. Eusko Abesbatza'ko abeslaririk ospetsuenak.
4go. Azken-agurra.

Euskaltzaleak, arren, lagundu Donosti'ko «Eusko Gaztedia»ri ta «Unión Radio»ri.

Handik gutxira, 1932ko martxoaren 6an, igandero berak zuzendu eta *El Pueblo Vasco* egunkarian egiten zuen euskal orrialdean honela zioen Joseba Zubimendik, hitzez hitz:

«Igarotako asteazkenean –martxoaren 2an, alegia–, euskerazko asteroko ordubetea, irratizkiñez, radioz zabaltzen asi ziran. Bagiñekigun erri guztietan zai-zai zeudela, eta or geunden ez ote zan geiago gure gogoa beteko. Baiña entzunda gero, guztien atsegin dala ikusi degu.

Itzaldiak, labur eta egokiak izan ziran. Olerkiak, berdin, ta eresi-abesti gauzetan zer esanik ez.

Alde askotatik iritxi zaizkate eskutitzat zorionak emanaz, ta orain gogo geiagorekin jarraitzeko asmotan dira. Datorren asteazkenean, zortziretatik bederatzietara bitartean izango da berriro euskerazko ordubete ori.

Len entzun dutenak badakigu berriro entzuteko zaleturik daudela; ta entzun ez dutenak, berriz, gogo geiagorekin.

Aste ontan Lizardi olerkari sarituak itz egingo du, ta, jakiña!, berari entzuteko gogo bizia dago alde guztietan. Abestiak ere lengoan bezela, edo askoz obeto.

Baiña badakite, radioa entzuteko tresna bat dutenak: asteazkenean, zortziretan!»

Lehenengo euskarazko programaren edukia, laburtuta, honelaxe izan zen:

«Joxe Zubimendiren agurra; Beorlegi eta Egileor antzeslarien jostaldia; Gabirel Olaizolak zuzentzen duen Euzko Abesbatzaren saioa, eta Ander Arzelus Luzearen hitzaldi laburra.»

Irratsaio historiko hura hasi, kontrapas edo poema batekin honela hasi zen, dotore asko:

«Ua, ua emendik, otsa.
Abil azkar, bizkor, abotsa!
Gure izkuntzan agur laztana
ludiko euskaldun danorengana
ortxe dijua.
Ua, ua...

Euzko erriko anai denori
eman akiok laztan berua.
Bere barrendik irtendakua
dek gaurko oiua:
Ua, ua!

Agur esaiok euzko orori,
aberats, txiro, zar ta gaztea.
Emaiok azkar, abots berea,
agur bero bat anai danori.
Ua, ua emendik, otsa!

Napar erriak bere aldean
gaur entzungo dik dei anaikorra.
Joadi azkar, abots pizkorra!
An maite aute biotz betean.

Bizkai aldeko anai leiala
ire zai ziok, abots nerea.
Esan akiok, izkuntza maitea
berriro pizten ari gerala.

Joari arin, egazka, bizi,
arabatarren biotz erdira
oiu egiñaz: garaiak dira!
Ire izkuntza dek lendabizi!

Zuberotarra, ernai dagona,
abil laxterka! Ire zai ziok.
Lapurdikoaz maitatuz biok,
egingo ditek arrera ona.

Mendi, erreka zear or ua
oyuz beteaz bazter guztiak;
euzko irrintzi alai dagiok,
gure eleko mintzo berua.
Ua..! Ua..!

Itxas barean edo larrian
dabillen euzko arrantzalea
agurtu ezak, abots nerea.
Lagun akiok bere lanian.

Agur! esaiok mendi gaiñean
dagon euzko artzaitxoari.
Itxaropenez azkar joari,
abil, abotsa, egiñalean!

Egunsentia ta illunabarra
ikus oi duan nekazaria,
oitura oneko gizon garbia
agurtu ezak, abots azkarra.

Agur esaiok seaska ondoan
abots ixillez kutuntxoari
abesten dion ama onari.
Euzko seme bat zeukak alboan!

Aitton ximurra urtean zamak
makurtu duan zar atsegiña
agurtu ezak. Gure alegiña
ta itxaropena eorrek daramak.

Ez adi aztu aundikiaren
jauregi apaiña barrun sartzea.
Ta beartu zan gure elea
miña orotan ibiltzearren.

Ua, ua emendik, otsa!
Abil azkar, bizkor, abotsa!
Gure izkuntzan agur laztana
ludiko euskaldun danorengana
ortxe dijua.
Ua... Ua!!!»

El Pueblo Vasco, 1932.03.05

Lehenengo irratsaio haren eskema:

1. zatia:

1. Eresia - Sintonia, alegia
2. Radio - onespena. (Irratiaren indikatiboa izango zela uste dut).
3. Mendi-Mendian (Usandizaga), tenore batek kantatuta.
4. Donostiar aba.
5. Recóndita armonía (Puccini)
6. Eusko rapsodia.
7. Carmen eresia.
8. Lezoko Kristo. Kontakizuna.
9. Eusko rapsodia.

2. zatia:

1. Abestia euskeraz
2. Kitolis. Bakarrizketa euskeraz, Alzaga jaunak.
3. Eusko Eresia.
4. Dantza eresiak. Donostiko txistulariak, zuzenean.
5. Amezketako Pernandoren ipuiak, Egileor jaunak.
6. Ator, ator mutil etxera. Ijituak.
7. Eresia.
8. Ijitua. Ipuia.
9. Abestia.
10. Arin-ariña, eta amaia.

Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus *Luzear* kazetari ta idazleak izan ziren saio honen nondik norakoak diseinatu eta prestatu zituztenak, Donostiako *Euzko Gaztedia*-ren eskari eta babesean (Teodoro Hernandorena jauna zen *Euzko Gaztedia*-ko lehendakari, hain zuzen). Eta mikroaren aurrean, gaur egunean sinestezina litzatekeen harrigarrizko lantaldea: Zubimendi eta Arzelus, 'Luzear' berak, Joxe Ariztimuño 'Aitzol', Xabier Lizardi, Telesforo Monzon, Emeterio Arrese, Hernandorena, Alzaga, Beorlegi...

Bestalde, ez zegoen gaur egun haina baliabide eta bitarteko tekniko ere. Jakina denez, garai hartako irratsaioak zuzen-zuzenean egin bear izaten zituzten, nola grabaturik ez zegoen-eta. Ez zegoen magnetofoirik, ez zegoen gero hainbat zabaldu zen kasseterik, ez zegoen euskal disko aukerarik, ez zegoen CDrik, ez zegoen GDSrik. Baina bai horraitio gurdi bat betetzeko hainbat imajinazio eta lanerako gogo! Eta gogoa eta imajinazioa elkar-lanean jarri, eta dena zuzenean egiten zuten, halaxe behar zela-ta. Ez zegoen beste aukerarik. Eta zegoen aukera pittin horixe gogoz hartu behar. Horrelaxe egin zuten.

Donostia, Zarautz, Errenteria, Andoain, Lezo, Pasai eta beste herri askotako txistulariak joan ohi ziren irrati hartako estudiotara. Baita koruak ere, irratsaioan zuzenean kantatzeko. Hori bai, beti Txomin Olano pianojolearen laguntasunarekin kantatzen zuten.

Entzuleek gogoz erantzuten zutela ikusteko, 1932ko irailaren 7ko *El Pueblo Vasco* egunkarian Zubimendi jaunak idatzi zuena aipatuko dizuet berriro:

> «Bageunden ba erradio onek bere lenengo saioa egin ondoren, beste erri batek ez ote zuan erantzungo. Baiña nunbait lana gogor artu zuten ta bero-bero atzetik or irten ziazkigu pasaitarrak ere. «Ikur» izenordepean gordetzen dan idazle azkarrak arrantzale bizitzako itzaldi eder bat egin zuen. «Puy» abots ederdun gazteak «Pudente» eres-antzerki zarrak entzunarazi zituan, ta Otero abots zolia lagun zuela **Juana Bixenta Olabe**, Bilintxen olerki ezaguna abestu zuan.
>
> Otero onek berak **Izatzu nitzaz kupira**, abestu zuan geroago; ta Sinfo Lizarraga andereiño erdi donostiar Debako pasaitarrak abestu zuan.»

Handik aurrera ere irratsaioak gogotik jarraitu zuen. Baina kostatzen zitzaien nonbait entzule jendea berotu eta erakartzea. *El Pueblo Vasco* egunkarian igandetako euskal orria erabiltzen zuten horretarako, ikus daitekenez. 1932ko urrian idatzi zutenez:

> «... ogeita bederatzigarrena aste onetan emanak dira. Lengoan genion, erriak bere laguntza ukatu gabe, saio aueri ederki laguntzen asiak dirala. Euskalzaletasuna agertzeko bide errezagorik ezin arki lezakete, ta, apika, ori ikusirik, aste ontan Oiartzungo gazteak etorri dira.
>
> Erri onetan orain dala egun gutxi **Txanton** antzerkia emanak dira, ta ori egin lezaken erriak irratsaio osoak egiteko trebetasuna dutela esan bearrik ez.
>
> Itzaldia, **Lartaun** izenordearekin idazten duan izlari gazteak egin zuan. Lengoan pasaitarrak bere jaiotz-erriko oiturak, arrantzale gora-berak agertzearekin ongi egin bazuten, oraingoak erriko oitura zarrak azterturik, toberaren antzin-oitura agertu zigun. Taberalari, koplari ta toberazaleak nolaz jardutzen diran erakutsiaz eleketa nagusi bat egin zigun.
>
> Gero, Etxebeste antzeslari bizkorrak, bakarrizketa gai bat egiñik entzulien eskerrak irabazi zituan, ta gero, eresi gauzetan entzungarriak adierazi zituzten.
>
> Txistulariak, Intxaustiren **Kontrapasa**, Guridiren **Alborada** ta beste zertxobait joaz beren trebetasuna ederki azaldu zuten, taabesbatz berdingabeak, **Ama** (Donosti aba), **Aurtxo txikia** (Mitxelena) ta onek berak egindako **Maite nazula diozu** abesturik, oso gogozkoak izan ziran.
>
> Piano jotzaille bat ere bazan, ta Txantonen **Gauza tristia** ta **Jauregi eder** abestiak entzunarazirik, saioa osatu zuten.
>
> Asieran esan bezela, erriak erantzuten asi dira. Badakigu or, inguruan, beste erri polit batean gertatzeko asmotan dirala. Lezo erria ezin ba atzera gelditu. Galde bestela Garbizutarrei.
>
> Donosti inguruko erri geientsuenak, naiz txikiak izan, ondo erantzun dute orain-txe. Ta nun dira erri aundiak? Zer diote Tolosa, Zarautz, Azpeiti-Azkoiti ta beste erri aundiagoak. Alpertu, ala?»

(Aurkezpeneko kontrapasean ikusi dugunez, hasi Donostiatik eta Euskal Herri osoko entzuleak agurtu nahi izan zituzten irratiz. Izan ere, irratsaioak nunahi entzun zitezkeela uste baitzuten, nahiz eta 200 wattio indarrez emititzen zuten Igeldoko gainetik. Diala ez zen egongo gaur bezain betea, eta auskalo. Gaur egun, Donostia osoan ez litzake entzungo indar gehiago erabili ezean, seguruenik).

1932an Donostiako estropadak ere eman zituen Joseba Zubimendik, irratiz zuzenean. Eta, ondo pentsatuta, ez dakit nola moldatuko ziren horretarako. Baina badakit ez zutela oraingo erosotasunik izango. Ez zuten oraingo ekipo digital arin, bizkor eta erosorik izango eskuartean, ezta RDSI-rik ere. Handik urte askotara ere, iraileko estropada famatuak zuzenean emateko tramankulu astun eta desorosoak eraman bear izaten genituen, gure garairako bitarteko teknikoak asko aurreratu zirela uste bagenuen ere. Haiek ere halaxe pentsatuko zuten, agian, besterik ez zuten ezagutzen-eta.

Halare, zuzeneko estropada emankizun honek ez zuen izan ohiartzun eta eragin handirik ustezko entzuleen artean. Orduko egunkari batek hauxe besterik ez zuen esan behintzat hurrengo egunean: «Fue un acontecimiento pintoresco para los euskalzales».

Bestalde, ez dugu ahaztu behar irratia entzun ahal izateko, «zeure etxean edo besteren batean irratizkiña entzuteko tresna bat» behar zela, eta artean ez zegoela entzuteko aparailu asko, ezta gaur egungo transistorerik ere. Gurean, adibidez, 1953an erosi zuten lehenengo *Telefunken* handi eta eder hura. Eta entzun ere ez zen orain bezala entzuten irratia. Luxu bat zen edozein ordutan irratia piztuta edukitzea. Eguerdian, bazkaltzeko garaian esateko, ez zen pizten irratirik gurean. Eta ilunbarrean, ganadutakoak egin arte ere ez. Afalorduan hasten ginen irratia entzuten. Eta besteak ohera joaten zirenean, hantxe ibili ohi ginen zer entzungo: Radio Moscú, Radio Paris, Radio Andorra... Hango ziztua eta hango interferentzia madarikatuak! Baina guk segi, nondik zer entzungo. Eta orduko irratiaren lilurarik ez dit niri sortu sekula telebisioak, nahiz eta urte asko hortxe pasatu ditudan lanean. Beste xarma bat zuen irratiak orduan, eta orain ere. Itzali ere ez dugu egiten egun osoan, lagungarri ona da-eta lanerako.

Bilboko *Radio Emisora Bilbaina* (egungo Radio Bilbao-SER, alegia), Eusko Alderdi Jeltzalearen eskuetan izan zen aldi batean, Bilboko Hotel Carltonen. Eta programazio osoaren berririk emango ez badizuet ere, badakigu hitzaldiak, euskal musika, txistua, bertsoak eta abar askotan ematen zituztela. Iñaki Eizmendi '*Basarrik*' kantatzen zuen handik aldian behin, gudariak, euskaltzaleak eta abertzaleak animatuz. Honako bertso hauek, adibidez, *El Pueblo Vasco*-n gipuzkoeraz eta *Ekin*-en bizkaieraz argitaratu ziren, irratiz eman ondoren.

Ene euskera maitea
(Irratizkiñez emandakoak)

«Alde guztitan entzun dedilla,
orra opari nerea.
Jaungoikoak gabon dizula,
biotzeko entzulea.
Gazte txiro bat orra gaur emen
asmo sendoaz betea,
indartu eta aldeztu nairik
abenda illezkor maitea;
ta bere izkuntza zoragarria:
euskera berdin gabea.

Gogoan daukat, etzait aztuko
umetan nuen aldia,
amarengandik ikasitako
ele estitsu garbia.
Nere jolasak ta ibillerak,
izketa batez guztia.
Ume orretxen itzak dira gaur
¡zer gauza zoragarria!
Ludi guztian berezi zera,
euskera maitagarria.

Amildegia jo zuan beingoz
gure Euskal Erri maiteak.
Amildegira jolas oiturak
ta ekandu berdin gabeak.
Margo zuridun basetxetako
gizon bulartsu trebeak,
birau gabeko izkuntza ederra
nunai aitortu zaleak.
Euskera maite: or goian dira
or zure gaizkatzailleak!

Euskera eder zoragarria
orra or irratetxetan;
txiro ta aberats artean,
etxe ta ikastoletan.
Itxaso zabal, baso ta mendi,
kale ta baserrietan.
Biotz zabalez aitortzen degu:
maite zaitugu benetan!
Gaurtik aurrera garaille bear
dezu alde guztietan.

Mundu guztian mintzatu dira
gizon azkar, jakintsuak,
euskera gaiaz egin dituzten
saio alperrikakuak.
Nundik eta nola zetozen
antzik emon gabekuak.
Guk zugaz bizi nai degu
arturik asmo senduak.
Aurrerantzean izango gera
euskaldun on ta zintzuak.

Ama euskera, ama maitea,
orra nik bi itz bero.
Ondo dakit nik: zure barrena
oraindik lasai ez dago.
Agintzen dizut euskaldun izan
nai degu orain ta gero.
Arrese Betiak bezela
zin egiñaz bero-bero,
guk ere ez degula bizi nai
euskerea il ezkero.

Jarrai daiogun, jarrai zintzoro,
geure elerti bidean.
Gurenda eguna izango dogu
uste ez dogun batean.
Nere jardunak asko ta asko
nola daduzkan nekean,
eta geiegi luzatutzea
guztientzako kaltean,
nere biotzeko entzuleak:
agur urrena artean!»

El Pueblo Vasco, 1932.11.27
Ekin, 1932ko Lotazillaren (abendua) 3an.
Donostiako «*Pueblo Vasco*»tik jasoa)

1933ko apirilaren 11ko *Argia* asterokotik hartuta, *Nere Bordatxotik* liburuan (Auspoa sail handia– Sendoa) argitaratu ziren bost bertso, Gugandik egatu berri dan Lizardi olerkari ospetsuari ere Bilboko irratiz eman zituen 'Basarrik'.

Baita *El Pueblo Vasco* egunkaritik hartuta lehen aipatutako liburu berean jasota dauden «Ezkonberriak Donostian (Baserri bertsolariak eratu ta, berak, Izagirre andereiñoa lagun zuala, Bilboko irratizkiñez esandako bertsoak)» ere.

1937ko apirilaren 15eko *Eguna* egunkaritik hartu eta *Nere Bordatxotik* liburuan aurki ditezken bost bertsotan Euskal Herriari erasoka ari zirenak salatu zituen bertsolariak, handiak egiten ari zirela-eta:

«Biotzgeak zerate
(Bilbo'ko Irratitik abestutako bertsoak)

«Etsai zakarrok, entzun zazute,
entzun, bai, arrats onetan:
gorrotoa ta edena baizik
ez da zuen biotzetan.
Aurrerakorik ezin ba egin
iñoiz gure mendietan...
Emakume ta aurtxoak iltzen
guztiz apartak orretan.
Ene maltzurrok, odolzaleak
zerate beintzat benetan!

Egoki asko joka zerate
ene Durango aldean
meza ematen zeuden apaizak
il dituzuten unean.
Ainbat aurtxo ta emakume on,
amairu moja tartean!
Etxe illarak txit apurturik,
antxe gorputz loi artean...
Kontu ederra daukazute, bai,
Jaungoikoaren aurrean.

Zeuen ustetan ori guzia
euskotarrak bildurtzeko.
Gu kokildu ta auldu ondoren
geure sailletan sartzeko.
Dana batekoz bestera izan da
lenez gain indartutzeko.
Erroma autsi zun erria ez dago
zuen menpean jartzeko;
emen guztiok gertu baigaude
aberri alde iltzeko.

Ongi dakigu milla pikardi
egingo dituzutela;
goiko txori zar maltzur oiekin
saiatuko zeratela.
Naiz taetxe bat bera osorik

utzitzen ez dezutela,
jakin euskoak edozertarako
txit gertutuak gaudela.
Ta erri au aske izango dala
Jainkoak egin bezela.

Ezertxok ez du izutu izan
euskaldun jende bikaiña.
Len ere edesti garbi askoa
daukagu guk, alajaiña!
Erriak puska, andre ta aurrak il,
bestetarako ez diña.
Bearbada or orrelakorik
ez dezute usteko, baiña
bere garaian iritxiko da
gaiztakerien ordaiña».

* * *

Hauxe da, labur esanik, euskarazko lehenengo irratsaioen historia koskorra. Lehen ere esan dudanez, saio hauen bihotza eta arima, Joseba Zubimendi, Ander Arzelus 'Luzear' eta Donostiako Eusko Gaztedia izan ziren, gero Iparraldeko bertsolaritzan buru-bihotz sartuta ibili zen Teodoro Godofredo Hernandorena jauna lehendakari zela.

Gogoan izango duzuenez, haiek berak ziren 1935eko urtarrilaren 20ko Lenengo Bertsolari Guduaren antolatzaile ere, Donostiako Poxpolin - Kursaal antzokian. Eta ez dakigu saiatu ziren ala ez, baina ez zuten eman saioa irratiz. Zergatik ez zuten eman, halako bertso-gosea eta irrika zegoen-eta? Baliabide teknikorik eza, ordua, eguna, saioaren iraupen luzea... Auskalo, zergatik ez zuten emango! Baina Kontxako estropadak ematea baino errazago izango zela pentsatu izan dut beti.

Hitz egin bai, Lenengo Bertsolari Egun hari buruz askotan hitz egin zuten periodiko eta irratian, aurreko eta ondorengo egunetan. Esate baterako, honela zioen Iñaki Eizmendi 'Basarrik', 1934ko abenduaren 30eko *Argia* astekarian, Zubimendiri erantzunez:

> "Gogoratuko zera donostiar irratetxetik egin nuen itzalditxo aretaz, zuk bezin apainki ezpada ere, zure asmo ori agertu nuen, oker aundi gabe. Geroztik zerbait idatzi ere egin dut zuk dakizun bezela.
>
> «A zer nolako mutil arroputza ori» - esango du norbaitek. - Bera bertsolaria dan orrekin, bertsolariak nola zuzendu eta bere esanetara nor makurtueraziko zebillek!». Gezurra da ordea, guztia. Ez nabil ni asmo orrekin, eta eztaukat bertso lanerako apan izugarririk. Nik sentitzen dedana esaten dakit, eta kitto. Nik neu baiño bertsolari obeak eta trebeagoak asko ikusi baititut, eta ikusten ditut oraindik ere. Pena ematen dit ordea erabiltzen dituzten gaiak erabiltzeak."

1949ko urriak 22

1936ko gertakari negargarriak etorri ziren gero; eta ordurarteko pittinik ere gabe gelditu zen Euskal Herria. Akabo euskarazko irratsaioak, eta akabo astekari euskaldunak, akabo *El Pueblo Vasco* (foruzaleen eztabaidaleku zen egunkaria, 1903-1936), *La Voz de Guipúzcoa* (egunkari errepublikarra, 1855-1936), *Argia* astekaria (1921-1936), eta beste hainbat ekintza. Mutualdi gogor eta mingarria etorri zen, bat-batean. Gau ilunaren beltza, noraeza! Irabazle harroputzak ez zuen nahi herri honek euskarazko arnasabide txikienik izan zezan.

Halare, denborak zauri asko sendatzen du. Urteak joan ziren eta, 1949ko urriaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki garrantzitsua hartu zuen, Elorriaga jauna Ahaldun Nagusi zela. Gutxienez ere, euskararen premia edo euskaraz bakarrik hitz egiten zuten baserritarretara iritsi beharra ikusi zuten, bereziki. Urriaren 3ko bilera hortako agirian zera irakur daiteke:

> «En reunión celebrada por la sección de Agricultura, Ganadería y Repoblación Forestal, el día 14 de setiembre ppdo., tuvo el honor de exponer la conveniencia y utilidad de realizar una labor divulgadora de cultura agrícola, ganadera y forestal...»

Eta gero:

> «A mi juicio, uno de los medios más rápidos y eficaces para realizar esta misión docente es el de las emisiones radiofónicas...»

Eta hirugarren parrafoan:

> «En estas emisiones que se realizarían periódicamente, serían expuestas en tono sencillo y popular, en castellano y euskera, temas y materias sobre los que conviene ilustrar al casero guipuzcoano, etab.»

Roke Aranbarri Epelde jaun azkoitiarra (gero Alianza Popularreko militante suharra) zen Aldundiko Nekazaritza, Abelgintza eta Basolan alor honetako ahaldun, hain zuzen ere. Eta baserritar eta nekazarien artean lana ondo egiteko, irratia oso bide ona zela uste zuen hark:

> «La modalidad de propaganda radiofónica es muy interesante, pues sólamente tenemos contacto con los elementos agrícolas y ganaderos de la provincia durante los meses de verano, en que se celebran los concursos comarcales, y el resto del año desaparece esa comunicación.»

1949ko abenduaren 7ko Aldundiaren bileran, Aranbarri jaunaren proposamena aho batez onartu zuten Gipuzkoako diputatuek. Eta emisio egunak, irratia, aurrekontua eta gainerakoak ere bai:

> «Estas emisiones proyecta celebrar los viernes de cada semana, de 7 a 7 y media de la tarde durante los meses del año, excepto los de verano en los que la gente del campo aprovecha todas las horas del día para las faenas agrícolas.»

Eztakit egia izango zen –ezetz uste nik–, baina ordurako irratia entzuteko aparailuak asko zabalduta zeudela uste zuen Aranbarri jaunak:

> «... en la actualidad no solamente en las zonas urbanizadas de Guipúzcoa, sino en un gran porcentaje de caseríos disponen de aparatos receptores de radio.»

Aldundiaren proposamena bere horretan onartu zuen Donostiako *Radio San Sebastian* Irratiak (lehenago Union Radiok) ere. Eta Aldundia eta Gipuzkoako Kutxaren artean ordainduko zituztela hango gastuak erabaki zuten. Irratiarena, 10.000 pezeta urtean; eta lantaldearena, 15.000 pezeta urtean, gutxi gorabehera.

Gauza hutsa zen, baina, besterik ez zegoen eta zegoenari heldu behar, ba. Halaxe, Jose de Artetxe, Beorlegi eta Patxi Juaristi hasi ziren lanean, irratsaioak prestatzen. Milagros Bidegain, Maria Dolores Agirre, 'Basarri' eta beste euskalzale askori ere laguntasuna eskatzen zioten, aldian behin.

Gogoan dut oraindik ere irratsaioa nola hasten zen, Jesus Guridi musikagile arabarraren 'hamar euskal melodietako' bat sintoniatzat hartuta, 'Charlas para nuestros baserritarras, emisión número'... iragarriz, ahots sendo eta ederraz. Saioak, euskaraz eta gazteleraz egiten zituzten. Ordua etzen oso egokia baserritarrentzat, neguan ere garai horretan lanean ari baitzen gehienetan, gaur ariko diren bezalaxe, seguruenik. Baina gurean bazen saioa entzuteko ohitura behintzat, beti ezpazen ere.

Niri dagokidanez, euskarazko lehenengo irratsaio, 1953an entzun nuen, abenduaren 24ko ilunabarrean. Solemnidade handiz, «Errezilen, Ibarzabal baserria azpian hartu ta bota du luiziak gaur. Hiru edo lau ildako badira, gutxienez!», esan zuen Jose Artetxe idazle azpeitiarrak. Notizia tristea horrelaxe eman zuten, eta harri ta zur gelditu nintzen ni, *Telefunken* handi haren barruan gizonezko eta emakumezko haiek nondik eta nola sartu ote ziren pentsakor.

Orain ez dago horrelakorik, baina euskara gaiztoaren arazoak ere izan ziren hamarkada honetako irratsaioetan. Ez dakit zuetako norbait gogoratuko den, baina norbaitzuri asko gustatzen zitzaizkien erdi erdaraz erdi euskarazko berriketaldiak, baserritar kaikuaren itxura eginez. Gogoan ditut 'Txomin del Regato' (hiru disko ttiki egin zituen), Agustin Zapirain 'Pello Kirtenen', eta horrelako batzuk. Disko horiek guk geuk zentsuratu genituen gure irratian. Benetan euskararen alde ari zirenek ez zuten onartzen horrelako kaikukeriarik. Ander Arzelus 'Luzear'-ek *Argiara* egindako gutun hauxe lekuko:

> «Irratizkiñez olako gauzak entzuten dituzten atzerritarrak gure eusko-erriatzaz zer usteko dute? Baserritarren lepotik parra egitea geure erria beeratzea ez ote da?
>
> Baserritarren laguntza iristeko bide okerra dezute ori. Gipuzkoar guztien laguntza iristeko nekazariai dagozkien gayak ere irredatu bearko dituzue... Baiña irratizkiña norberaren erritarren lepotik parre egiteko ezta asmatu, erritarrai jakintza emateko baizik.»

Kritika honek ez zuen eragin handirik izan nonbait, eta handik urtebetera, 'Nabariztarrak' (Joxe Zabala-Aranak) honela idatzi zuen berriro, *Argian*:

> «Astero beintzat baserritarrentzat euskerazko itzaldia irredatzea ez ote degu iritxiko? Nork egin bai omen da-ta... Baiña tamala irratizkin onek gauza benagorik ez irredatzea! (Pello Kirteni buruz ari zen, noski).»

* * *

ARANTZAZUKO MEZA

Euskara eta Irratiaren historia honetan, Arantzazuko Meza eta elizkizunen fenomenoa ere aipatzekoa dela uste dut; eta ez nuke ixilik utzi nahi, oso aipamen laburra egitera beharturik banago ere.

ARANTZAZU, euskal santutegi bat XX. mendean, liburuan Julian Beloki lankideak idatzi zuenez, estraineko irrati-emanaldia Arantzazutik 1934ko irailaren 9an egin zen, Arantzazuko Andre Mariaren eguna zela-eta. Donostia eta Bilboko Union Radio irratiek lau haizetara zabaldu zuten egun handi hartako Meza nagusia. Kronikak dioenez, Mateo Mujika Gotzainak eman zuen Meza, eta erromesen artean hantxe ziren Manuel de Irujo eta Telesforo Monzon, Madrieko Kongresuko diputatu abertzaleak, beste abertzale askoren artean. Baina indarrean zegoen lege bat zela-ta diskurtsoak irratiz ematea debekatuta zegoenez, eguneko sermoia etzen eman irratiz. Eta hitzaldiaren garaian, Teologi Ikastegiko terrazatik bezperako *Benedicta* kantatuz bete behar izan zuten hutsarte hura.

1944an, Aste Santuko bederatzi elizkizun eman zituen zuzenean Union Radioren oinordeko zen Radio San Sebastianek. Halare, Arantzazu eta Donostia arteko telefono-lotura egiteko zailtasun tekniko gogorrak izan zituzten. Lehen aipatu liburu berean irakur daitekenez, «La dificultad estriba en la deficiencia de las líneas telefónicas. La línea Aranzazu-Oñate es de hierro, con lo que además de una fuerte caida de potencia, se presta a fuertes inducciones con las otras líneas».

Kontuak kontu, 1946ko uztailean hasi zen Radio San Sebastian Arantzazuko Basilikatik igande eta jaiegun handietako Meza nagusia bere entzuleei zuzenean ematen. Eta jakina denez, Meza latinez ematen zen, baina hitzaldia euskaraz izango zela pentsatzen dut, seguruenik. Auskalo!

Arantzazuko elizkizunek zuten garrantzia Gipuzkoako agintarientzat eta entzuleentzat zer-nolakoa zen jakiteko, aski da honako hauxe gogoan izatea: 5.000 pezetako diru-laguntza eman zuen Aldundiak, Arantzazuko fraideen eta Radio San Sebastianen arteko lankidetza sendotu zedin, eta asteroko Meza zuzenean eman ahal izateko bitartekoak hobetu zitzaten.

1952ko uztailaren 10ean, Jaime Font y Andreu, Gipuzkoako Gotzainaren ohar hotz bat hartu zuen Aita Pedro Arangurenek, Arantzazuko Goardianoak.

«Muy Estimado P. Guardián. Días atrás me visitó una señora pidiéndome si podía hacer algo para que fuera bilingüe (castellano y euskera) la explicación de la misa y el sermón que desde Aránzazu radian los domingos. Alegó a favor de sus deseos la multitud de personas de avanzada edad que ignoran el castellano y viven en caseríos, privados por su enfermedad o vejez, de acudir a la iglesia parroquial y por lo tanto del consuelo de oír la palabra de Dios.»

1957ko irailak 13

1932an *Argia* astekariak baserritarrentzat eskatzen zuen euskarazko irratsaioa, 1957ko irailaren 13an asi zen, azkenik, Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* irratian. Maria Dolores Agirre, 'Basarri', Joxe Mari Etxebeste, Manu Oñatibia, Enrike Zurutuza eta Jose Luis Rodriguez (Publizitate sailekoa) ziren saio honen arduradun eta egile.

Glorioso Movimiento-ko irrati hau, RNE-ak iruntsi zuela esan dizuet lehenago. Eta bertara jo nuen zehaztasun eske, puntu batzuk argitu nahirik. Baina alfer-alferrik saiatu nintzen. Inork ez du ezer gorde, itxura denez. Oraindik bizi den taldekide bakarra den Enrike Zurutuza jaunari ere galdetu izan diot noiz eta nola hasi ziren, zer egiten zuen bakoitzak, gidoiak nork eta nola egiten zituzten, eta abar. Baina hark ere ez zuen izan ohiturarik paperak eta apunteak gordetzeko.

Azkenean, horraitio, irratsaioa noiz eta nola hasi zen, zein egun eta ordutan ematen zen eta beste xehetasun batzuk aurkitu nituen, egunkariak miatuz!

«Donostiako *La Voz de Guipúzcoa –Emisora del Movimiento–* irratian, ostiral arratsetan, 20:15etatik 21:00etara ematen zen saioa. Baina ez zuen izen berezirik. Beno, *Audición de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián*, deitzen zuten periodikoan (*La Voz de España*), Aurrezki Kutxa horrek babestu eta ordaintzen zuen-eta. Beranduago sartu ziren hain ezagunak izan ziren, *Fanderiako pentsuak: ez merkeenak, bai onenak!*, eta horrelakoak»

Irratsaioaren edukia, laburtuta, honelaxe izaten zen: Maria Dolores Agirreren kontakizun eta aholkuak etxekoandreentzat, euskara gozo eta ederrean; Joxe Mari Etxebesteren kontakizun eta euskal kantak; don Antonio (Manu Oñatibia) eta Joxemigelen (Enrike Zurutuza) elkarrizketa, feria eta azoketako berriak, Torrelavegako ferira bixitak, eta jendeak gustura entzuten zituen Basarriren kirol eta albiste orokorrak, albiste bakoitzaren ondorengo moraleja bertsotan emanez. Horiek ziren irratsaioan erabiltzen ziren gai nagusiak.

Irrati berrien sorrera

50. hamarkadaren hondar urteetan, Euskal Herriko irrati giroa aldatzen eta ausartzen hasi zen. Eta irrati berriak sortu ziren: Segura Irratia (1956),

Arrate Irratia (1959), Tolosa Irratia, Arrasate Irratia, eta abar. 1959an Iruñeko eta Bilboko Herri Irratiak sortu ziren. Eta euskarari sarrera eman zioten, batez ere lehenengoetan: Segurak Arantzazuko Meza, eguneroko errosarioa, eskainitako diskoak, zorion agurrak eta abar ematen zituen. Tolosak, laster ikusiko dugunez, elizkizunak, sermoiak, etab. Arratek, Arrateko Santutegiko elizkizunak, diskoak, iragarkiak, ipuinak eta abar.

1958ko uztaileko *Zeruko Argiako* 'Euskal-erradio-ekitaldiak' izeneko artikulu batek dioena gogoratu nahi dizuet, garai hartako euskararen panorama irratietan zer-nolakoa zen garbi erakusten du-eta:

Bizkaiko Murelagako arpidedun Pedro Armaolea jaunak egin zigun eskutitzetik artzen dugu hau: «Otsailleko zenbakian irakurri neban «Illunbek» izenpetuta, euskerazko aldizkaria ta euskerazko liburuak be badoguzala, eta euskera egun batzuetan erradiotik be egiten dabela eta erradio estaziño orreik artuten alegiñe egin bear gendukela.

Baña zergatik ez imiñi, ze egunetan ta ze ordutan izaten direan ekitaldi orreik? Onetara imiñi ezian, eztakienak zelan artu? Neuk be estaziñoen barri eztot ontzu artean yakin, ta orain etxataz pasetan sarri entzun barik euskerazko ekitaldi orreik. Eta nik eztakit Donostiko estaziño biok baño beste estaziñorik. Badago emoten dabenik, estimauko neuke urrengo ZERUKO ARGIAN ipintea zeintzuk estaziñok emoten daben euskeraz, zein egunetan ta ze ordutan; eta zeinbat ZERUKO ARGIAREN irakurlek artuko leukiez euskerazko ekitaldiak.

Gaur erradiotik euskeraz egiten bada be, eztakie. Eta onetara uste dot euskeraganako zaletasun geiago izango litzakela eta ganera *Zeruko Argiarentzako* gure izen geiago.

Ia ba urrengo zenbakian ipinten badituzue zeintzuk estaziñok emoten daben euskeraz, zein egunetan ta ze ordutan; eta orretarako entzule geiago izango dabe erradiuek eta bear bada *Zeruko Argiak* beretzat irakurle geiago.

Agur ba onenbestegaz. Pedro Armaolea. Murelaga. Bizkaia.»

Eta *Argiatik* erantzun hauxe eman zioten:

«Gure arpidedun Pedro Armaolea jaunak dion bezela, egia da «Illunbe» idazle txukun ta gazteak euskaldunei dei egin ziela *Zeruko Argiatik* euskal-erradioak entzuteko. Ezagun da arpidedun orrek aldizkaria ondo irakurtzen duela.

Guk emen *Zeruko Argian* aren eskutitza artuta, galde egin diogu Gasteizen Agirrezabaldar Andoni jaunari, Donostian Etxaniz'tik Nemesi apaiz jaunari eta Bilbon Alfonso Irigoien jaunari. Eta ona emen artu ditugun erantzupenak.

Gasteiztik: «Radio Vitoria» izeneko irratia bakar-bakarrik ari da euskera irakasten ta zabaltzen. Iragan urteko abenduaren lenengo egunetatik datorkigu zintzo

zintzo euskal-irakasaldiak emanez astean irutan, auxe da, astelenean, asteazkenean eta ostiraletan, eta arratsaldeko sei t'erdietatik zazpirak arte, 300 metroko ondatan.

Bestalde, «Umandi»ren euskal-elezti edo gramatika erabiltzen du Irrati onek, bere euskal-irakasaldiak emateko. Ona emen, bada, jakin nai duzuna andi-andika azaldua.

Agur, ba; eta badakizu zure agindupean naukazula. Agirrezabaldar Andoni.»

* * *

Donostia'tik:

«Donostia'n bi irratetxe ditugu: Radio San Sebastian (293 metro ta 1025 kiloziklo) eta Radio La Voz de Guipúzcoa (230 metro ta 1304 kiloziklo) dituztenak.

*Radio San Sebastian'*ek, astelen eta ostiraletan egiten du bere euskal-saioa, arratsaldeko zortzirak eta laurdenetatik bederatziak arte. Igandetan, eguerdian frantsesez asten da. Saio onetan, frantzesez zerbait itz egin ondoren, amabiak eta bostean-edo, euskeraz ematen du igandeko omilia edo ebanjelio-azalpena. Euskal itzalditxo au, Baiona'ko eliz-barrutiko Bikario Jenerala dan Narbaitz jaunak emana da.

Arantzazu'ko Meza Nagusia, itzaldia euskeraz dala, igande ta jaiegun guzietan zabaltzen du Radio San Sebastian'ek. Neguan amarretan, eta udan amar t'erdietan izan oi da Meza Nagusi ori.

Segura'n egunero Errosarioa ematen dute euskeraz eguerdi-aldean. Eztakit zein ordutan, baña amabi t'erdiak inguruan izan bear du. Gabean ere, beste ordutxoren bat aritzen ote diran nago; baña ez dakit berri garbirik.

Tolosan asi berriak dira. Emen ere (eztakit zein egunetan), astean iru aldiz zerbait euskeraz egiten dute.

Jainko-baitan gogoan izan zazue onoko apaiz buruzuri ta adiskide artu dezun

Etxaniz'tar Nemesi.»

Tolosa'ra ere galde egin degu ta ona emen erradio-esalaria (speaker) dan Ugarte'tar Izaskun neskatxak berak erantzun:

«Euskerazko radio-ekitaldiak astearte, ostegun eta larunbatetan, ordubietatik ordubi ta laurdenera. Onda: 200-1550 kiloziklo.»

Eibar'en ere badakigu badagoela erradio emisora; baña ez dakigu euskeraz egiten duenik. Ea urrengorako gure ordezkari Zubiaurre'tar Xabier'ek idazten digun.

Iruña'n ere radio-emisora bi dira. Baña aiek ez dute euskerazko ekitaldirik ematen.

Bilbotik:

«Zure idaztiari erantzungo deutsak orain emen. Bilbon ezta ezer egiten erradiotik. Ain zuzen be orretan daukagu gogoa eta pausu batzuk emonda gagoz. Ikusiko dogu zelan doazen gauzak.

Beste barik, biotz-biotzez zorionak zuek fraideok egiten dozuen lan bikañagatik.

A. Irigoien.»

Tolosatik, Peña-Albizutar Xabierrek hauxe erantsi zion *Zeruko Argiako* oharrari:

«Euskal-egunkarietan euskeraz idaztea baño erradioz euskeraz itz egitea obe da, onuratsuago dala uste det».

Eta azkenik, *Argiako* zuzendaritzaren oharra:

«Euskaldunak, ondo gorde Zeruko Argia au, euskerazko erradio-orduak ziur ta ondo jakiteko. Eta adi-adi egon zuen sukaldean radio euskalekitaldiak entzuten. Ikusiko dezute nolako gozotasuna artuko dezuten eta nola gauza eder-ederrak ikasiko dituzuten. Entzun, entzun radio-euskal-ekitaldiak...» (*Zeruko Argia,* 119-120 orrialdeak. 1958ko uztaila)

1961: Loiolako herri irratia

1961ko otsailaren 11n hasi zen Loiolako Herri Irratia. Eta euskarari lekurik gehiena eta zabalena eman zion irratia berauxe izan zen, ezpairik gabe, era guztietako irratsaioak euskaraz eginez, 1965eko uztailaren 22an Fraga Iribarne jaunak itxiarazi zuen arte, lehenago Segura, Arrate, Tolosa, Arrasate eta beste asko itxi zituen bezala. Denuntzia gogorrak izan zituen Loiolak, izan ere: Radio Nacionalaren *Diario hablado* edo *partea*-rekin lotura berandu egiten zuela, egunero Jose Antonio Agirreren animaren alde errosarioa esaten zuela (Jose Antonio Agirre Elustondo azpeitiarraren errezatzen zen, bere familiaren eskariz), publizidadea euskaraz ematen zuela (Donostiako irratien denuntzia zen hau, konpetentzi desleiala egiten omen ziela-eta...) eta abar. Ordainez, urtebeteko ixilaldia izan zuen irratiak. 1965eko uztailaren 22an ixildu, eta 1966ko uztailaren 31n hasi zen, berriro.

1962-1963an Loiolako Herri Irratiaren euskarazko programazioa etzen ahuntzaren gauerdiko eztula, *Zeruko Argia* asterokoak esaten zuenez. Egunero-egunero, ordu asko egiten zuen euskaraz. Eta edozer gai erabiltzen zuen gainera: zuzeneko emanaldiak, Meza eta errosarioa, eskelak, elkarrizketak, herrietako informazioa, antzerki saioak, esketxak, bertsolariak, baserritarrentzat saioak, euskal kanta berriak, egungo eta musika klasikoaren aurkezpenak, publizidadea... Denetarik egiten saiatu zen, ondo edo gaizki, euskarak edozertarako balio zuela sinestuta. Euskarari eta orotariko programazioari behin-behineko garrantzia eman zion.

Euskaltzaindiak antolatutako 1962ko Bertsolarien Txapelketako azken aurrekoak eta azkenengo jaialdia zuzenean eman zituen. Eta 1962tik 1972era *Bertsolari gazteen sariketa* urtero antolatu zuen, irratiz. Gero 'Ez Dok Amairu' taldea izango zen kanta berri mugimenduari serio lagundu zion, beste irratiek ez bezala. Ikastolen sorreraz benetan arduratu zen, bere ateak zabaldu eta lagunduz. Eta, batez ere, orotariko programazioa euskaraz egiten saiatu zen. Garai hartako datuen arabera, programazioaren erdia euskaraz egiten saiatu zen, gutxienez. Euskarazko programa hauetako asko Donostiako Herri Irratira pasatzen ziren 1970etik aurrera, batez ere, ordurarteko zuzendari zen don Felix Monedero kalonje valladolidarra kendu eta irratia jesuiten eskuetara pasatu zenean. Bestalde, zuzeneko emankizunak normaltasunez egin zituen, euskeraz: Zarauzko kantu eta dantza jaialdi bat, 1961ko abenduan; Otxoteen sariketa, txistularien alardeak; pilota partidak, Azpeitiko zezen plazan egiten ziren herri-kirol emanaldiak; Arrateko Txirrundalari-igoerako finala 1963ko udaberrian, Donostiako estropadak. Lehenengo futbol partida, 1973an Zarautzko Aritzbataldeko zelaian Realeko jokalari beteranoek eta Irungo Real Unión-ek jokatu zutenean eman zuen. Auskalo zergatik, baina futbola erdarazko kirola zela uste izan zuen beti.

Gaur egungo zenbait irratik dituen teknika eta giza-baliabideak izan balitu... Baina zuen pitinarekin programazio orokor eta duina euskaraz egiten saiatu zela esan behar da. Eta horri esker, 1961etik aurrera euskarazko irratsaioen ohitura eta normaltasuna nabaria izan zen, egindakoak ahaztu eta egungoari bakarrik begiratzeko grina handia izaten badugu ere.

* * *

Euskara munduko irratietan

Euskararen kezka eta begirunea bazen, bai, kanpoko irratietan ere. «Euskara munduko irratietan» izenburuarekin, 1971ko urtarrilaren 10eko *Zeruko Argian* irakurri dudana laburbildu behar dizuet, merezi du-eta. Hitzez hitz, honelaxe dio:

«Ego Euskalerrian bada euskaraz ari den irratirik.

– Loiolako Erri-irratia (jesuitena). Goizeko zortziretan asi eta gauerdirarte ezta ixiltzen. Erdia gaztelaniaz eta beste erdia euskaraz ematen ditu emankizunak. Anuntzioak ere euskaraz egiten ditu.

– Donostiako Erri-Irratia: egunero goizeko bederatzietatik amarrak arte, eta arratsaldeetan seietatik zazpiak arte entzun diteke. Igandetan, ordu bat geiago: iruetatik lauak arte. Egunero, astean eta burutzean, programak gaztelaniaz eta euskaraz egiten ditu. Anuntzioak eta beste ere, askotan euskaraz. Emankizun geiago euskaraz sartukod ala entzun da.

– Radio San Sebastian. Larunbatero, arratsaldeko zazpietatik zortzietara, euskaraz. Bestalde, anuntzio eta elkarrizketa asko. Egunero ordubete edo euskaraz.

– La Voz de Guipuzcoa: Basarrik bere lagunekin, eguerdiero, orduerdi bat euskaraz. Radio Bilbao, Radio Popular de Bilbao, Radio Vitoria, Radio Pamplona, noizean bein bakarrik ari dira euskaraz

Ipar-Euskalerrian:

– Baionako radiotik, egunero, lau minutuko emankizuna ematen da. Igandetan, orduerdi bateko emankizuna, bederatzi ta erdietatik amarrak arte.

USA

– Nevada: Igandero, Lopategi jaunari esker, eguerditik aurrera ordubete ta erdiz euskaraz aritzen da.

– An bertan, Radio Winnemuca-k ere ematen du euskaraz emankizun zenbait. Ez dakigu noiz eta zenbat.

– Wyoming eskualdean, igandero, eguerdian, ordubetez euskal itzaldi eta kantuak.

– Idaho: igandero, bizkaieraz, eguerditan ordubeteko emankizuna.

Kalifornian noizean bein euskeraz egiten dute ango irratiek

Venezuela

– Erri-Irratia: igandero, eguerditan, ordubeteko emankizuna euskaldungoari buruz. Erdia gaztelaniaz, erdia euskaraz. Noizik eta bein, beste zenbait itzaldi ere bai, euskaraz.

Argentina

- Iru radio ari dira euskaraz, itzaldi eta kantuak emanez. Ego-Amerikako beste zenbait errialdetan, berdin. Nunean nunean euskaraz ari dira, itzaldi, bertso ta kantu».

24 ORDUAK EUSKARAZ

1976ko martxoaren 27an egin zen 24 'orduak euskaraz' programa berezia, Donostia eta Loiolak antolatu eta prestatu zuten, Euskaltzaindiaren babesarekin. Eta Donostia eta Loiolako Herri Irratiek hogeita lau ordu oso-oso-

rik euskaraz eman zuten. Bilbo eta Iruñeko Herri Irratiek, zati batzuk egunean zehar.

Zeresan eta hizpide asko eman zuen gaueko hamabietan hasi eta hurrengo gauerdirarte iraun zuen programazio hark. Zita baten beharrez, orduko *Zeruko Argian* irakur daitekeena gogoratuko dugu: «Elizaren hegalpean hazitako herri irratiek urteetan euskara eta euskal kulturaren inguruan egindako lanaz baliatuz, hogeita lau orduko irratsaioa egin nahi da, dena euskeraz. Eskarmentu handiko ekipoa dago egitasmoaren atzean».

Egia da, bai. Urteetan egosten eta egiten ari zen giroaren ondorioa izan zen hogeita lau orduko abentura hura, labur esateko.

Beste zaku bateko irina zen, baina ez nuke esan gabe utzi nahi Bilboko Herri Irratiak sekula egin zuen euskal programaziorik serioena 60. hamarkadan egin zuela, Xabier Gereño, Joxe Luis Bengoa Zubizarreta, Xabier Kintana, Xabier Peña eta beste euskalzale askoren laguntasunari esker. Geroago, Juan Mari Iraolagoitia, Adolfo Arejita, Angel Mari Unzueta eta beste laguntzaile asko hasi zirenean, gauzak asko aldatu ziren, onerako. Gaurko Bizkaia Irratia lehengo giro haren ondorioa da, ezpairik gabe.

Sei ordu euskaraz

Ez nuke ahaztu nahi, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez, egunero sei ordu euskaraz egiten hasi zirenekoa ere, 1970eko hamarkada hondarrean eta 1980koaren hasieran. Gipuzkoako Herri Irratia (Loiola eta Donostia), Radio San Sebastian, *La Voz de Gipuzkoa* eta abar sartu ziren gurdi honetan. Eta egunero sei ordu euskaraz egiten ahalegindu ziren.

Gero ordea, Aldundiaren diru-iturriak itxi zirenean amaitu ziren euskarazko programa haiek ere. *Dondinero* dontsua!

* * *

ETA ORAIN ZER?

Joanak joan eta istorioak historia, balio oraingoak balio du guretzat, batez ere, joandako urak eztu errotarik mugitzen-eta. Zorionez, komunikabideen alorra gogotik aldatu da 80ko hamarkada hasieratik hona, Gernikako Estatutuaren babesari esker. Batez ere, 1982 urtearen hondarrean Euskal Irrati-telebista sortu zenetik aldaketa handia egin dela aitortu beharra dago, nori berea emanda. Gerraurreko eta gerraosteko urte zailak ahazteko indarra eta adorea izan dutenek inork baino hobeki dakite sinisteak ere lanak dituela. Gaurko baliabideak (legea, dirua eta teknika baliabideak), unibertsitatean ikasketak bu-

rutu eta etorri den hainbat neska eta mutil lanerako prest, zentsura zorrotzik eza (ezta Jose Antonio Agirre Elustondo zenaren animaren alde errosarioa errezatzen duzulako isunik ere)... Sinisteak ere lanak ditu, bai, baina hauxe da gaurko irratigintzaren panorama, alde batetik.

Bai, baina orain beste muga batzuk daude kumunikabide askorentzat, itxura denez. Dirurik ez badago, eztago euskararik ere. Aldundiak subentzioak ematen zituen arte euskarazko saioak egiteko prest egon, baina orain hitzik egiten eztuen medio asko ezagutzen dugu. Badakigu dirua behar dela, baina diruaren baitan bakarrik al zegoen, ba, zenbaitek ahoa betean botatzen zuen eskalzaletasuna?

Euskararen erabilerari arazo honi lotuta, 1981eko urriaren 10ean, *Goiz-Argi* aldizkarian, zera esaten zuen Euskal Herrian Euskerazek:

> «... dezente irrati dira euskaraz %1 besterik egiten ez dutenak. Portzentaia bereran erabiltzen dute Radio Juventud de Eibar, Radio Nacional de Bilbao, Radio Juventud de Vizcaya, Nafarroako Radio Requeté eta Radio Popular de Pamplonak.
>
> Eta euskara oso gutxi erabiltzen dutenen artean, La Voz de Navarra, Donostiako Radio Nacional, Radio Bilbao, La Voz de Guipúzcoa, Radio Popular de Bilbao, eta Radio San Sebastián konta daitezke».

Euskararen portzentaiarik handiena erabiltzen zutenen artean, hauek izendatuzen zituen E.H.E.-ek:

Donostiako Herri Irratia	% 42
Loiolako Herri Irratia	% 50 (3)
Segura Irratia	% 55

Gainerakoak, %1 eta %3 inguru horretan zebiltzala esaten du oharrak. Baina guztira jota, datuak gaizki daudela uste nik, baina honela zioen:

Irrati emankizuna:

Astebetean	2.108 ordu.
Euskeraz	167 ordu.
Erderaz	1.941 ordu.

* * *

Eta orain zer gertatzen da? Nik dakidala, 1981ean EHE-ek argitara eman zituen datuen aldean aldrebesak direla uste dut gaur egunekoak. Eta, halare, inor ez da lotsatzen hemen, eta inork ez du protestarik egiten, horrelaxe beharko duelako-edo. EHE, eta euskararen alde ari dela esaten duen askok, ez

(3) Loiolako datuak gaizki daude. Gabaz Donostiarekin bat egiten zuen, eta gau osoa gaztelaniaz ematen zuten haiek. Horregatik, Loiolan egiten zen programazioa, %60 pasa euskaraz egiten zen.

du hitzik atera aspaldian. Orain telebistak liluratzen gaitu, eta irratiaz ahaztu egin gera, entzuteko orduan besterik gertatzen bada ere.

Bai. Irratiak entzulego ona biltzen du gaur bere inguruan: 1.050.000 entzule inguru egunero, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bakarrik. Nafarroan, berriz, 216.000 entzule. Alabaina, CIES edo EGMk eman dituzten azken datuen arabera, ehundik larogei eta gehiago entzulek ez du euskarazko saioak entzuteko ohiturarik.

Euskaraz ari diren irratien kontaketa egin, eta bildu ditudanak hauexek dira, herriren bateko irrati txikiren bat ahaztuko badut ere:

- Euskadi Irratia: orotariko programazioa egiten du, eta Euskal Herri guztirako ari da. Hau da apusturik handiena egin duen irratia.
- Euskadi Gaztea: programazio musikala, Euskal Herri guztirako.
- Bizkaia irratia. Bizkaieraz eta Bizkairako. Programazio orokorra.
- Arrate Irratia. Bizkaia eta Gipuzkoako zati handi baterako. Programazioa: musika, kultura, informazioa (Euskadi Irratia)
- Oñati Irratia. Munizipala (Informazioa, Euskadi Irratia).
- Arrasate Irratia.
- Euskal Herria Irratia: Iruñea. Programazio orokorra, Iruñerrirako, batez ere. (Informazioa, Euskadi Irratia).
- Xorroxin Irratia: Baztanaldea.

Iparraldean:

- Euskadi Irratiak: Gure Irratia, Zuberoko botza, Irulegi Irratia.
- **Internet:** Eusko Irratiko emisioak mundu guztira zabaltzen dira, satelitez eta Internetez.

Irrati txiki asko, edo herrietako *irrati libre* deitu askoren informazio zehatzik ezin izan dut bildu, oso zaila da-ta, lehenago esan dudanez. Baina entzun ditudan irrati askotan, gehienetan, euskara baino erdara gehiago egiten dela ohartu naiz. Eta ez da susmo hutsa, zoritxarrez. Oker nagoela demostratuko balidate, zoriontsu nintzake.

Halare, minik handiena lehenago ere aipatu ditudan zenbaitek ematen didate: RNE, SER, COPE, ONDA CERO, Radio Intereconomia, Radio Nervion, Radio Gorbea, Radio Donostia, Radio Irun, Radio Laudio, Radio Getxo, Radio Eibar, Itzurun Irratia (Zumaia-Onda Cero) eta beste askok. Handienek ez dute lurralde honetan bi hizkuntza ofizial direnik onartzen, praktikan behintzat. Eta txikiak erdara puru-puruan ari dira, lasai asko, frekuentziak era-

biltzeko baimena jaso zutenean beste baldintza batzuk onartu bazituzten ere. Eta iruzurra ez da zilegi beti.

Garai bateko Herri Irrati batzuk ere geroz euskara gutxiago egiten dutela nago, nik entzun ahal izan dudanaren arabera.

* * *

EUSKARA MAILA

Amaitzeko, irratietako euskararen arazoaz hitz bi.

Irratiak eta, batez ere, Telebistak erabiltzen duen euskara maila gogor kritikatu izan da, etxean, kalean, bileratan, aldizkarietan. Eta esateak lotsa ematen badit ere, irratian edo telebistan inoiz lana egin, eta maila hoberik eman ez duen kritiko askok idazten duela, alegia. Batez ere EITBri buruz ari denean, barrutik egin ez zuena kanpotik salatuz. Kritika ona, baina...

30. hamarkada hartan ere, oraingoxe kritika berdintsuak egiten zitzaizkion euskaraz ari zen irratiari. Behin eta berriz, *El Pueblo Vasco* egunkariko euskarazko gehigarriaren arduradun ziren Joxe Zubimendi eta Ander Arzelusek 1933an idatzi zutena gogoratu genezake:

> «Euskara zailla jartzen dezute –esan digute askok–, orrela ez dezute zabalduko. Zabaltzeko, au ta au ta au egin bear dezute.
>
> Beste batzuk, zera esaten digute: gaizki zoazte ortik, zuek darabiltzuten euskara ori erdipurdikoa da, ta... garbitu, garbitu egin bear da. Aberastu, gure izkuntza oso aberatsa da-ta.
>
> Batzuentzat orlako idazkiak bear genituzke: errezak, ariñak, ez nekagarriak. Bestientzat, ordea, umekeriak dira oiek, eta gai eta idazti sakonak bear dira aurrera joatekotan...»

Doinu hau, melodia hau ez da gaur goizeko kukua, ez. Beste modu batean esanda, funtsean kritika berdintsuak egiten direla lehen eta orain ere, alegia. Kritika serioski egiten duenak arrazoi izaten du, ia beti. Ez dago ukatzerik hori. Baina gaur egungo irratieko euskararik txarrena, *egiten ez dena* dela esan eta salatu nahi nuke. Oso euskara gutxi egiten dela, proportzioan. 1981ean EHE-ek egin zuen salaketa hura, hartan gelditu zen, zoritxarrez.

Ahozko komunikabidetako euskararen nolakoari dagokionez, zein ote da irratirako euskararik egokiena? Euskara erraza eta mezua argi eta garbi ematen duena dela esatea gutxi esatea dela erantzungo dit norbaitek, eta zehaztasun gehiago eman behar dela. Nire iritziz, euskara ona egiten da irrati serioetan, orohar. Izatekotan ere ahozko hizkuntzari, ahozkotasunari gehiago begiratu eta erreparatu behar zaio askotan begiratzen zaion baino, ahozkotasuna –ahozko formulak– ondo zaindu eta gogotik mimatuz. Badakit komunikabideetako eguneroko lan-mekanikak idatziaren joera eta dinamikara eraman gaituela. Asko-

tan, erdaraz irakurri edo pentsatu eta zuzenean euskarara itzuliz ari beharra dagoela, ezinbestean. Baina ez dut uste hori denik biderik egokiena.

Horrez gainera, mikrofonoan hitz egin behar duen profesionalari hizkuntza maila ona exijitu behar zaiola esatea bidezkoa litzateke, nahiz eta badakidan bat baino gehiago hasarretuko zaidala, eta nik neuk ere zer egin nuen ba erantzungo didala. Baina erdaraz, edozein hizkuntzatan horrelaxe egiten dute. Bestalde, arian-arian egiten diren oharrak eta zuzenketak onartzeko hainbat apaltasun ere behar du lanean ari den profesionalak, ikastea norbere onerako da-eta.

Nolanahi dela ere, irrati eta telebista hizkuntza (euskara) mailaren gaia, nik baino askoz gehiago dakitenek aztertuko dute, horretan ari dira-eta Euskaltzaindiaren ardurapean. Bitartean, ea nork errebindikatzen duen Euskal Herriko irratietan orain dagoena baino euskararen presentzia handiagoa.